



ARGIA

arrosa sareak 20 urte

*Irratien elkarlanaz,
herrigintza uhinetan*

22-27. orriak

2.738 | 2021 / 06 / 27 | 3,90 €



"Aurreratuta dago herri hau, baina euskara ez da ikusten"

12 | JORGE NAUR




Indarkeria obstetrikoren ondorioak pelbis zoruan

30 | GORPUTZA




LARRUN #264
Euskara denontzako eta eskuragarri



HODEIA EZ DA EXISTITZEN
iametza podcast

TEKNOLOGIA BURUJABETZAREN INGURUKO PODCASTA

Albisteak | Erreportajeak | Elkarrizketak | Gomendioak
Entzungai baleafunk.eus-en



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
SHU OTERO

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | SHEIDA BESSOZI
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | ZIGOR ETXEBURUA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: AINA BIDAL
- 54 | BERANDUEGI



UXUE BEREZIARTUA

32 | PELBIS ZORUA

June Fernandezek erreportajeaz azaldu du osasun sistemak ez duela zoru pelbikoa osotasunean lantzen eta bertako gaitz asko indarkeria matxistaren ondorio direla.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Giza eskubideez baino, zibersegurtasunaz nahiago du hitz egin Frontex-ek

Jenofa Berhokoirigoin

12 | PERTSONAIA | JORGE NAUR

“Ondo dago hizkuntzak jakitea, baina hitz egin... euskaraz, ezta?”

Miel A. Elustondo

22 | HEDABIDEAK

Arrosa Sarea, 20 urte sintonian

Santiago Canales / Hordago

28 | HEZKUNTZA

“Aurreko ikasturtean galdu zena galdu da, urteak beharko dira hutsune horri buelta emateko”

Mikel Garcia

36 | GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIRAREN KRONIKA

Pedalei eraginez, pensio duinen alde

Joxe Iriarte "Bikila"

44 | KULTURA

Agustin Ibarrolaren itsasadarra

Peru Iparragirre

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enpresek inbentarioa:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOAK

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi duguz.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Bigarren eskuko gerra

Balingenek ez dirudi kapitaina denik. Amaierarik gabeko gerra patetikoaren isla da bere itxura. Kongoko Errepublika Demokratikoko bigarren gerra ofizialki amaitu eta hamasei urtera, herrialdearen ekialdeak indarkeria, kaos eta beldur zirimolan murgilduta jarraitzen du. Gatazkak aspaldi utzi zion gerra irekia izateari, harrapakeria militar bihurtu zen. Talde errebeldeak jada ez dira ezta Kinshasako Gobernuaren aurka edo euren mezenas ruandarren alde ere borrokatzen. Elkarren artean egiten dute borroka, eta, batzuetan, beste talde batzuetatik defendatzeko edo zibilak babesteko aitzakiarekin, herritarrak izutzen dituzte harrobia kontrolatzeko, lurpeko aberastasuna arpilatzeke eta lurraldeak menderatzeko – legez kanpoko ehiza edo baso-mozketarako—.

Kongokoa, batez ere, gerra merkea da. Gatazka bat bigarren eskuko armekin eta soldadu behartsu eta etsiekin, dolar eskukada baten truke hiltzeko prest daudenak. Gerra gordin, sarraskijale, gupidagabe eta komikoa; non askapen mugimenduetako kapitain autoizendatuek pelutxezko otso bibotedunen txano barregarriak daramatzaten.





Bigarren itzulia kantonamenduka

ANGELU

Zentro eskuina indartsu (%42,5 lehen itzulian) bigarren itzulirako, ezkerreko hautagaia du parean (%25).

BAIGURA ARRANOMENDI

EH Bai bigarren itzulira pasa da (%36) eta orain arteko kontseilarietako lehiatuko zaie (%53,2 lehen itzulian).

BAIONA 1

Zentro eskuina bigarren itzulirako oso ongi kokatua da (%51,3), parean du ezkerre (%21,7 lehen itzulian).

BAIONA 2

Lehia tinkoa eskuinaren sostengua dutenen (%28,8) eta ezkerrearen artean (%23,3). Parte-hartzeak garrantzi handia ukanen du.

BAIONA 3

Hor ere, tinko izanen da lehia.

BIARRITZ

Eskuina azkar doa eta lehen ateratako Brisson eta Valsek lasaiki irabazi behar lukete bigarren itzulia ere.

BIDAXUNE-AMIKUZE-OZTIBARRE

Hor ere eskuina faborito (%52,5), baina parean du EH Bai indartsu, hirugarren ateratakoen sostenguarekin.

DONIBANE LOHIZUNE

EH Baik emaitza onak lortu arren (%39), nekez gailenduko zaio eskuinari (%48,7).

EUSKAL MENDIA

Eskuinak indar handia du (%51,9) eta parean du EH Bai.

ERROBI-ATURRI

Zentro-eskuina faborito da (%40) eta parean du EH Bai.

HENDAIA-HEGOKO

ITSAS BAZTERRA

Lehen indarra da EH Bai (%29,3) eta orain arteko ezkerreko kontseilarietako lehiatuko zaio (%26,6).

UZTARITZE-ERROBI

EH Bai eta zentro eskuineko kontseilarien arteko lehia tinko.

Bigarren itzulirako txartela lortu du EH Baik zazpi kantonamendutan

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

par Euskal Herriko hamabi kantonamenduetatik zazpitan lehiatuko dira ezkerreko abertzaleak ekainaren 27an: Hendaia Hegoko Itsas Bazterra izenekoa (lehen indarra atera da EH Bai, botoen %29,3 lorturik); Donibane Lohizunen (bigarren, %39 eginik); Bidaxune-Amikuze-Oztibarren (bigarren indarra, %24,5); Uztaritze-Errobi-Urdazurin (bigarren, %29); Errobi Aturrin (bigarren, %27,1); Baigura Mondarrainen (bigarren, %36) eta Euskal Mendian (bigarren, %36,9). Hendaian ezkerrekoa ukanen dute lehiakidea, haatik, beste guztietan eskuina.

Ezkerreko abertzaleek duela hogeit hamar urte lortu zuten lehen kontseilaria departamendu mailan (Jean-Michel Galant) eta geroztik, Alain Iriartek ere lortu zuen aulkia 2008an eta 2015ean –elkargoan presidenteorde bihurturik, 2017an demisionatu zuen kargu metaketa saihesteko–. Bigarren itzulirako lehia hurbiletik begiratzekoak izanen ditugu batez ere Bidaxune-Amikuze-Oztibarre; Hendaia, Hegoko Itsas Bazterra; Uztaritze-Errobi. Hala ere, parte-hartzeak ukanen du garrantzi handia eta horrek eragin ditzake sorpresak.

Zehaztekoa da abstentzioa izan dela garaile nagusia: %61,2koa izan da Ipar Euskal Herria eta Biarno biltzen dituen Pirinio Atlantikoetako departamenduan. 2015 urteko hauteskundeekin konparatuz, 14 puntuz apaldu da parte-hartzea.

Historikoki Pirinio Atlantikoetako departamendua ia betidanik kokatu da eskuinean: soilik 2009-2015eko agintaldia gidatu zuen ezkerreko. Ekainaren 27an beste behin ere garaile atera behar luke zentro eskuinak. Ikustekoa da orain arteko presidentea den Jean-Jacques Lasserrek (%52,5 lortu du lehen itzulian) beste behin irabazten dituen bozak... Parean du EH Bai, lehen itzuliko %24,5ko emaitzarekin eta bigarren itzulian ezkerrearen alde bozkatzeko deia egin duten Michele Doyhenart eta Lucien Betbeder hautagaien sostenguarekin (%14,4).





Akitania Berrian, Rousset sozialista indartsu bigarren itzuliari begira

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Alain Rousset Akitania Berria eskualdeko Kontseiluko presidentea nagusitu da lehen itzulian, botoen %28,84 bildurik. Alderdi Sozialistako hautagaia da eta 1998az geroztik du eskualdeko presidentearen aulkia atxikitzen. Eskualde mailako hamabi departamenduetan lortu du lehen kokatzen.

2015ean bezala, aldi honetan ere eskuin muturra ukanen du parean, azken hau bigarren ateraturik ekainaren 20ko hauteskundeetan. Rassemblement National alderdiko Edwige Diazek %18,21 eginik, bigarren itzulira pasatzea lortu du (nahiz eta zundaketek aurkakoa aurreikusi, 2015ean baino emaitza txarragoak egin ditu eskuin muturrak Akitania Berrian).

Bigarren itzulira aurkezteko aukera dute %10eko langa gainditzen dutenek. Hori horrela, Martxan-Modem koalizioa (%13,71), eskuineko Errepublikanoak alderdia (%12,46) eta Europe Ecologie hautagai ekologista (%12,08) gelditu daitezke lehian.

Beste behin ere, Roussetek bidea nahiko erraza dauka, ikusirik eskuineko hautagaiak zailtasunak dituztela elkartzeko. Alderdi Sozialista eta Europe Ecologie negoziaketetan dabilta, aurrekoan bezala gehiengo osatzeko helburuarekin.

Parte-hartze biziki apala izan da (%35,91) eta bigarren itzulirako ere abstentzio handia aurreikusia da.

IPAR EUSKAL HERRIAN EZKERRA NAGUSI

Alderdi Sozialista atera da lehen Ipar Euskal Herrian, botoen %25 inguru bilduz eta bigarren kokatu dira ekologistak (%15 inguru). Beste aldean, eskualde mailan baino emaitza txarragoak bildu ditu eskuin muturrak Pirinio Atlantikoetako departamenduan: Alain Roussetek bozen %29,75 eta Edwige Diazek %13,50. Parte-hartzea ere pixka bat altuagoa izan da Pirinio Atlantikoetan: %38,59. Abertzaleek ez dute hautagairik aurkeztu aurtan, ez eta ere sostengurik adierazi.

%80

PARTE-HARTZEA

35 urtetik behetikakoen artean abstentzioa %80koa izan da eskualde mailako bozetan. Orokorrean eta Frantziako Estatuko datuak osotasunean harturik, %68koa izan da. Hots, sekulan baino parte-hartze apalagoa izan da aldi honetan eta interes eskasa ikusirik, kezkatuak agertu dira alderdi politiko guztiak.

ESTATUAN

Frantzia mailako emaitzei begiratu gero, horra ondorio nagusi zenbait: 2015eko bozketei konparatu gero, eskuin muturra ahuldu egin da eta Emmanuel Macron lehendakariaren alderdiak ere zaplazteko handia bildu du. Ezkerrari dagokionez, Alderdi Sozialista indartsu agertu da, eta Europe Ecologie talde ekologistak ere emaitza onak lortu ditu. France Insoumise ezker muturra haatik ahul agertu da.



"Batasuna lortu behar dugu ekologistekin. Haiek ere lortutako emaitza onak frogatzen digu trantsizio ekologikoaren alde lan ona egin dugula [elkarrekin osaturiko gehiengoaren bidez]"

Alain Rousset
Akitania Berriko presidentea

Gutxieneko soldata jomugan



JUAN MARI ARREGI

1.047 euro. Hori da 2023 urterako Lanbide arteko Gutxieneko Soldatari (LGS) Espainiako Gobernuak jarri nahi dion langa –gaur egun 950 euro dira–. Aurreikuspen horrek milaka euskal herritarri eragingo dio, gobernu autonomikoek ez baitute eskumen horren arrastorik ukan oraingoz.

Gutxieneko soldata aspaldi zabaldu zen Europako hainbat herrialdetan, langileei oinarrizko diru-sarrera bat bermatzeko. Adibidez, Frantziako Estatuan –Ipar Euskal Herria barne– 1.554 eurokoa da langa, batez besteko soldatetik gertuago. Baina europar elite ekonomikoarentzat gutxieneko hori beti izan da traba bat enplegua eurek nahi luketen baldintza prekariotan mantentzeko.

Espainiako Gobernuak iragarpena egin bezain pronto, finantzaren arloan gurean ere aginte makila duen Espainiako Bankuak txostena kaleratu du, 2019an LGSren igoerak enpleguari egindako ustezko aberia nabarmenduz. Elitearen hedabide espainiarrek haizatu dute kontua: bateko “100.000 lanpostu” kendu dituela neurri horrek; besteko benetan 174.000 izan direla galduta-koak; adineko eta gazteak enplegu gabe gelditu direla...

Txostenak “ebidentzia” horretan egin du azpimarra: LGS igotzeak kalte egiten omen dio enpleguaren sorrerari. Baina biztanleria aktiboaren inkestak justu kontrakoa dio, LGS igo zen urtean zientoka milaka lagun gehiago hasi baitzen lanean.

Espainiako Bankuaren mezua argia da ordea: ez okurritu berririo igotzea! Eta badakigu zein pentsutik jaten duen finantza-erakunde goren horrek, izan banku pribatu nola enpresa handi. Deitu iezazioe presioa, mehatxua edo xantaia nahi bada. Zer espero behar genuke gobernuko mandatarien partetik horren aurrean? Geriza eskaini dieten sindikatu eta alderdiak azti ibili behar lukete, gutxienez, LGS pixkanaka igotzeko egindako promesa ez dezan haizeak eraman. ●



Gazte parrandazaleak ala pandemiak itotako gazteak?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Gazteen “makro-parrandei” eta Ertzaintzak atzemandako “kale-zurrut arduragabeei” sona ematen dieten albistek talka egiten dute erredakziora iristen zaigun informazioarekin: arazo fisiko eta mentalak garatzen, ikasketetan hondoratzen eta suizidioan pentsatzen ari diren gazte kopurua gora doa kezkarriki. Errealitate horretaz eta horri aurre egiteko falta diren baliabideez ere hitz egin beharko dugu, egoera lehertu aurretik.

Jarrai dezakegu parranda bai, parranda ez, parranda nola eztabaidan kateatuta, baina horrek ez ditu aldatuko larriak diren zifrak. Suizidatu edota suizidatzen saiatu diren nerabeen “epidemiak” buruko osasun zerbitzuak gainezka dituela irakurri diot Ángel Sánchez psikoterapeuta murtziarrari. Euskal Herriko datuak ez dakizkit, baina egoeraren ilunaz konturatzeko adina zantzu badugu. Lau gazte-tik batek pandemian tentsioa, estresa edo agobia sentitu dutela dio Nafarroako ikerketa batek, gazteek Itxaropenaren Telefonora egiten dituzten deiak ugaritu direla jakinarazi dute Gipuzkoako arduradunek, anorexiak eta bulimiak gora egin dutela eta sufritzen dutenetako asko 12-13 urteko neskak direla –sarri jada muturreko kasuekin– entzun diegu hemengo psikologoei, eta aurten ikasleengan antsietatea eta tristura gailendu direla azaldu digute irakasleek.

Seaskako hezitzaileak astekari honetan bertan (28. orriko erreportaje) dioten moduan, dena sortzeko duten adin horretan, nerabezaroan, “ezinbesteko duten harremana ukatu zaie eta frustrazio handia ikusi dugu”. Hutsune animiko, fisiko eta soziala arrastoa uzten ari da, zuloa egiten, eta hainbatek ez du halako egoerei aurre egiteko nahikoa tresna, horiek ere esperientziak –adinak– eman ohi dizkigulako sarri.

“Haur eta gazteak guk uste duguna baino indartsuagoak dira eta oso ondo daramate guztia” mantra errepikatzen edo gazteak kriminalizatzen –eta pandemiako turko-buru bihurtzen– segi beharrean, hitz egin dezagun nola tratatu dituen pandemiaren kudeaketak, non jarri diren indarrak eta baliabideak, zein ondorio ari diren orain azaleratzen. Gero, gaizki eta berandu iritsiko baitira baliabide apurrak, adabakia adabakiaren atzetik, hezkuntzan, osasun arreta integralean eta gizarte zerbitzuetan behar adina ez bada inbertitzen. ●

Oroimentsua



ARITZ GALARRAGA

Ez dut gogoan noiz eta non irakurri nuen estreinakoz Jorge Luis Borges *Funes el memorioso* ipuina. Bi hipotesi otutzen zaizkit gertakizun horren aurrean: aurretik ez irakurri izana batetik; irakurri izana eta ez gogoratzea bestetik. Biak zaizkit erabat gertagarri. Lehena balitz, literatura kanonikoan ditudan hutsuneak konfirmatuko lituzke. Bigarrenaren kasuan, nire memoria txarra. Baina hara zer plazer eskaini berri didaten gabezia horiek: estreinako aldia balitz bezala irakurri dut, Juan Garzia Garmendiaren bertsioan, Funes oroimentsuaren istorioa.

Ireneo Funes, beraz, elbarri, oharkatik mugitu ezin, Plinio zaharraren *Naturalis historia*-ren liburuki bat iritsi zaio. Eta handik gutxira zazpigarren liburuko hogeita laugarren kapituluko lehen paragrafoa ari da buruz errezitatzen. Kapitulu horren gaia da, hain justu, oroimena. Izan ere, zalditik erori zenetik, oharren-oroimenak hutsik ere gabeak ditu: "Oroitzapen gehiago dut nik bakarrik, mundua mundu denetik gizabanako guztiek inoiz izan dituzketenak baino". Kontrara, ez da, ordea, beharbada, pentsatzeko oso gai. Pentsatzea diferentziak ahaztea baita, orokorrera jotzea, abstrakziora. Eta Funesen mundu mukurrutuan ez da xehetasunik baizik, xehetasun ia bereiztezinak.

Andoni Egañarena da itauna, ahaztuta ez, harrapatu gabe neukan zutabe batean: "Egingo nuke gogoan duela noiz eta non irakurri zuen estreinakoz Jorge Luis Borges *Funes el memorioso* ipuina". Estreinako aldia balitz bezala irakurri uste izan dudana honetan, baike, gogora etorri zait, irakurritu neukan, segur aski karrerako ikasgaireren batean. Baina hori baino garrantzitsuago, Egañaren beste hau: "Eta memoria da, batik bat, sormenaren iturri. Inork ez du ezdeusetik sortzen. Gogoan duguna nahieran moldatuz sortzen dugu guztiok". Zalditik erori zen beste batek, Montaignek: "Oroimen naturalik ezean, paperezko bat egiten dut". Zutabe hauen bitartez neronek, adibidez. ●



Motzean

EUSKARA. "Ez dugu zuen baimenik eskatuko eskubide berriak lortzeko". Determinazio horrekin Baionako Bernat Etxepare lizeoko berrogei ikasle inguruk euskaraz erantzun du Baxoko filosofiako azterketa, jakin arren frantsesez ez egiteagatik ez direla zuzen-duk izango.

KUTSADURA. Iberdrolaren filiala den Van Oord enpresaren Aoelus ontziak 16 kilometro luze eta 2,8 kilometro zabal dituen hidrokarburu isuria eragin du Bretainiako Saint Briec badian. 100 litroko jariora izan du. Instalazio eoliko bat eraikitzeko indusketa lanetan dabil itsasontzia.

POLIZIA. Petronorren greban dauden langileen aurka oldartu zen Ertzaintza ekainaren 15ean. Muskizko findegiaren aurrean piketea egiten ari ziren langileak. Bi egunera, lankideei elkartasuna adieraztera Amurrioko epaitegira hurbilduriko Tubacexeko grebalariei kontra egin zuen Ertzaintzak.

EPAITEGIAK. Maiatzaren 7an, prekaritatea salatzeke ehunka gazte mobilizatu zen Hego Euskal Herriko hiriburuetan, Ernaik deituta. Ertzaintzak Gasteizko eta Bilboko manifestazioetan gogor kargatu zuen. Orain, mobilizazio horietan parte hartzeagatik zortzi lagun auziperatu dituzte.

GIZA ESKUBIDEEZ BAINO, ZIBERSEGURTASUNAZ NAHIAGO DU HITZ EGIN FRONTEx-EK

2004az geroztik, Europaren kanpoaldeko mugak kontrolatzen dituen agentzia dugu Frontex. Hamazazpi urtez lehen aldia da Europako Justizia Auzitegira deiturik dela, bi papergabeek haren kontra salaketa jarririk. Garrantzi handiko epaiketa dugu, justuki, Frontexek burutu giza eskubideen urraketak zein kanporaketa ilegalak frogatzeko bideo eta lekuko andana izan arren, orain arte inoiz ez duelako Justiziaren aurrean berea defenditu behar ukan. Etorkinak “mehatxu” gisa dauzka, eta senidetasuna alde batera utzirik, zibersegurtasunean eta armagintzan inbertitzen dabil.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Lehen aldia da Frontex edo Muga eta Kostaldeetako Guardiaren Europako Agentzia Europako Justizia Auzitegiaren aitzinera deitua dela. Parean dauzka bi papergabe –bata, senide oro herrian utzirik etorritako kongoar adingabea, bestea, emakume burundiarra–, giza eskubideen alde dabilzan Front-Lex, Progress Lawyers Network eta Greek Helsinki Monitor egiturez inguratutik direla. Hamazazpi urtez lehen aldia da Frontexek Justiziaren parean beharko dituela bere nondik-norakoak azaldu, leporatua zaizkion joera krudelei buruz berea defendituz: Lesbos greziar irlara arribaturik, agenteek “bortizki inguratu, lapurtu, bahitu, atxilotu izana” eta azkenean, “taldekako kanporaketa bidez itsasoratu eta motorerik gabeko almadia batean urik eta jakirik gabe abandonatu izana”.

“Orain arte, Europako Justizia Auzitegiak ez ditu inoiz Frontexen praktikak aztertu, eta ez die inoiz baliabiderik eskaini biktimei. Auzitegiaren gain konfiantza dugu, biktimak entzunen dituela eta mundu guztiak ikusten duena ikusiko duela sinesten dugu, Frontexi kontuak eskatzeko eta Europar Batasunaren lur-reko eta itsasoko espazioetan zuzenbide-estatua berrezartzeko gisan”, irakurri daiteke Front-Lexen agirian. Horrela da, “mundu guztiak ikusten duena”... ehunka bideo zein lekukok dituztelako agentzia honen kanporaketa ilegalak zein giza eskubideen urraketak islatzen. Parean, izan Justiziaren bidetik, ikerketa kaze-

taritzatik zein herritarrengandik, egitura honen kontrako presioak biderkatuz doaz. Hauen artean dugu sortu berri den Abolish Frontex mugimendua, helburua argi bezain garbi duena: “Egitura militar-industrial honen desegitea nahi dugu, eta honen orde mugitzeko eta bizitzeko askatasuna dagoen jendarte baten gauzapena”.

Europako Batzordearen eskaerari segi, 2004an sortu zuten Schengen eremu kideek Frontex, kanpoko mugen kontrolari dagokionez elgarren arteko kooperazioa bideratzeko. Baina, nahiko laster, batez ere 2015az geroztik, etorkinen “inbasio masiboaren” mamua inarrostearekin batera, Frontexen eskumenak, aurrekontua eta azpiegiturak handitu egin zituzten, oinarrian zeukan –ba ote zeukan?– gizatasun apurra alde batera utziz. Aurrekontua, 2006an 19 milioi eurokoa zuen, 118 milioiokoa 2011n, 320 milioiokoa 2018an eta 460 milioiokoa 2020an. 5,6 bilioi eurokoa izan behar luke 2027an! 1.500 agente dabilta gaur egun mugen kontrolatzen eta hemendik sei urtera 10.000 dituzte aurreikusten.

Diru eta mugazain kopuru ikaragarri handiak, ia hurbileko jarraipenik gabe. Azkenean, Iruzurraren Kontrako Europako Agentziak urte hastapenean ikerketa abiatu zuen, Frontexen gobernantzan “irregurlatasunak” eta “hutsgeiteak” sumaturik. Hurbileko jarraipena bideratu beharra daukate europar instituzioek, are ghiago agentziak bi eskumen berri es-

kuratu dituen honetan. Batetik, tresneria (hegazkinak, dronak, radarak, itsasontziak, eta beste) bereber erosi dezake, estatuekilako dependentsia azkarki ttikituz; bestetik, agenteak armatuak izanen dira.

Migranteen etorrerari segurtasunaren betaurrekoekin begiratzen dio EBk, eta zeharka, Frontexen bidez, armagintzaren eta zibersegurtasunaren esparruetako enpresa boteretsuekin dabil tratuan. CEO Corporate Europe Observatory gobernuz kanpoko erakundeak otsailean plazaraturiko txostenean argi eta garbi agertzen da Frontex egiturak industria hauekin eskuz-esku garaturik duela bere estrategia. Medium.com komunikabidean plazaraturiko *Frontex, l'EU, la politique de la peur* (“Frontex, EB, beldurraren politika”) artikuluan irakur dezakegu laburpena.

MUGEN KONTROLA: NEGOZIO EMANKORRA

“Enpresen interes horiek ez dira neutralak, eta *de facto* Frontexen ikuspegia bideratu nahian dabilta, hortik kontratuak eskuratuz” irakurri daiteke artikuluan. Lobbyinga deitzen zaio horri, eta 2017tik 2019ra egondako harreman hau dute azaltzen txostenean: 130 bat dokumentu, hamazazpi bilera, eta batez ere armagintzako eta zibersegurtasunerako 108 enpresekin izandako topaketak. Txosten honetan irakurri daitekenez, lobbyekilako harremanen %72 ez da deklaratu izan EBren gardentasunerako erregistroan eta dena dela, lobbyekin harrema-



FRONTEx ABOLITU

Giza eskubideak erabat zangopilatzen dituela, agentziaren abolizioaren aldeko mezua biderkatuz doa Europa mailan. Tartean, ekainaren 10ean Frontexen egoitzan militante batzuk egindako ekintza honen bidez.

nik ez duela errepikatzen dabil agentzia. Zainketarako tresneriak (dronak, kamarak, robotak...), datu biometrikoen erabilera, sare sozialen ustiapena, eta armak dituzte gehienetan aipagai. Hartu-eman hauek horrela laburbiltzen ditu txostenak: "Industriaren posturak ondoko baieztapenean batu ditzazkegu: arazo guztiei erantzungo die teknologiak".

Logika honen baitan, errazki esplikatzen dira azken urteetan giza eskubideen esparruan errepikatuz doazen eskandaluak. "Elkarrizketa ia guztietan, omisio nabarmena agertzen da teknologia eta tresna horiek giza eskubideetan izan dezaketen eraginaz –tartean, bizitza pribaturako, hobengabetasun presuntziorako eta askatasunerako oinarrizko eskubideak dira isilduak–". Etorkinak "kudeatu beharreko objektu" gisa kontsideratzen

dituzte lobbyek, "usu terrorismoari eta kriminalitateari loturiko mehatxu gisa". "Beldurraren kanpaina horren bidez bioteknologien, zaintza-tresnen eta suarmen erosketa asko handitu daiteke. Armamentuaren industriak badaki hori, eta bere onurarako beldurra hedatzen dabil", *Frontex, l'EU, la politique de la peur* artikulua arabera.

ZIBERSEGURTASUNAREN HAUTUA

Biometrics on the Move zein *International Conference on Biometrics for Borders*, gisa horretako gogoetak antolatzen dabil Frontex, teknologia bidezko aurpegi ezagupena zein bihotz-taupaden detektagailuak bezalako tresneria daukala gerorako aterabide gisa. Gaur egun jadanik martxan ditu, eta funtsean, urtarrilean, jendarte zibileko 61 egiturek zioten gu-

tuna bidali Europako Batzarrari ondokoa galdatuz: "Mugen eta migrazioen kontrolerako teknologia automatizatuen erabilpenari buruzko debekua edo moratoria, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak errespetatzen ote dituen independenteki neurtu arte".

Europako Kontu Auzitegiak ere iritzia plazaratu zuen ekainaren 7an: Frontex "ez da eraginkorra". Autokritikatik, europar instituzio honek aitortzen du eskumen asko bideratu zaizkiola agentziari, benetako kontrolik eta balorapenik burutu gabe. Agentziaren eraginkortasun-eza azaltzerakoan, ordea, ez ditu mugen itxierak ondorioztatu heriotzak aipatzen. Alta, 1990ean izenpeturiko Schengen Itunaz geroztik, gutxienez, 40.000 migrantek dute bizia galdu, muga zeharkatu nahian. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

NINA MÛR
eyewear

*Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak*



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com

Jorge Naur

MANKANYERATIK EUSKARARA



ONDO DAGO HIZKUNTZAK JAKITEA, BAINA HITZ EGIN... EUSKARAZ, EZTA?



Sorterriko hizkuntzaz hitzaldi egitera etorri zen Gasteiza, baina hitzari lotu zitzaion ordukoxe ohartu ginen hura ez zela izozmendiaren punta besterik. Ginea Bissaun jaioa, Senegalen hazia, Euskal Herrira ezkondua... Bizialdiaren zati bat, euskarazko doinurik jatorrean.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Hitz Adina Mintzo zikloan izan zinen duela zenbait hilabete Gasteizen, zeure herrialdeko hizkuntza mankanyeraz mintzo.

Lehenengo, neure burua aurkeztu nuen. Gero, hizkuntzaren gainean hitz egiten hasi nintzen pixka bat. Eta hasi eta gero, segi. Hitzaldia agindu zidate-nean, idaztea pentsatu nuen, baina gero bestela erabaki nuen: "Idazten badut ere, ez dut idatzi dudana bezala esango! Hortaz, zertarako idatzi behar dut? Galderen arabera, erantzungo dut". Ez dut gauzak irakurtzeko amorraziorik, nik baino lehen mankanyerari buruz batzuek eta besteek esan dutena irakurri nuen eta, ondoren, neure bizi eskarmentutik hitz egin nuen, erraz, ulergarri. Euskararen egoerarekin zertxobait konparatu nuen, hiztun kopuruak-eta

azaldu... Hango etnien berri ere eman nuen pixka bat... Horiek esan, eta galderak erantzun nituen.

Urduri zinen saioa hasi aurretik...

Bai, hainbeste jenderen aurrean! Bate-tik, ez nekien zenbat jende izango zen eta, bestetik, ezta nolako galderak egingo zituzten ere. Urduri. Prozesua barneratu nuen, hitzaldia egin behar nuela, alegia, baina berriz etxera joan arte ez nintzen lasaitu! Kar, kar... Emazteak animoak eman zizkidan. "Zuk horrelako gauzetarako balio duzu!", esan zidan. Baina beti ez, beti ez dut balio!

Zein bide egin zenuen Euskal Herriraino etorri artean?

Hamalau urte arte gurasoekin bizi izan nintzen, familian. Orduan, biak hil ziren,

aita eta ama, lau hilabeteko aldian. Harrezkero, etxean nork bere bidea egin zuen. Eskolan ondo ari nintzen, lizeoan ere bai, unibertsitatera sartzeko proga gaintu nuen... Baina matrikula ordaintzeko dirurik ez nuen, unibertsitate pribatua besterik ez zegoen-eta han orduan. Hortaz, lanbidea ikasi nuen, Ingeniaritza Teknikoa, Eraikuntza zibilak espezialitatean. Gero, ikaskide izandako hamalau lagun elkartu eta eraikuntza hasi ginen. Batzuk ziren elektrizista, besteak igel-tsero, zurgin... Ondoren, beste birekin Senegalera joan nintzen, Abene herrira, lanera, etxeak egitera. Gero, taberna hartu nuen errentan. Musika jartzen nuen tokia girotzeko, mugimendua sortzeko, jendea erakartzeko. Turista pila bat joaten da-eta hara! Hiru etxe txiki ere hartu nituen, turistei errentatzeko eta, behin,



Jorge Naur

GABU, GINEA BISSAU, 1980



Irakasleak zituen gurasoak. Hamalau urte zituela galdu zituen, lau hila-beteko aldian biak hilak. Ingeniari-tza Teknikoa ikasketak egin zituen, Eraikuntza zibiletan espezializatu, Senegalera egin, Irurako alabaz maitemindu, Euskal Herrira etorri 2010ean, zahar-etxeko langile, osasun garraioan ikasi eta trebatua, sorterritik urrun ari da bizia egiten, bere burua euskaldundua, jatorrian mankanyera hiztuna izanagatik ere. Besteak beste. Babel dorre txiki bat da haren etxea, euskara, gaztelania, kreolera, mankanyera eta gainerako hizkuntzen saltsa lodian.

Josunek-eta hartu zuten etxe haieta-ko bat. Hantxe egon ziren hamabost egun, nire ondo-ondoan, baina hain-beste lan nuen, haiei begiratzeko denborarik ere ez nuen!

Eta nola lotu zineten bata besteari? Ez dakit, bada! Han bizi zen katalan baten bidez hasi ginen harremanetan. Orain hila da katalan hura... Hark esan zien nire andreari-eta, nitaz ari zela: "Honek gaztelania pixka bat badaki. Ginea Bissautik etorri da, eta portugosaren antzeko espainola-edo badaki". "Ederki, norbaitekin hitz egiteko besterik ez bada ere!", esan omen zuten nire andreak-eta. Eta horrela hasi ginen harremanetan. Egun bat, bi egun, hiru egun... Zenbait toki bisitatu nahi zituzten, eta beste lagun batek eta biok itzuli bat antolatu genuen, haiei bazterrak erakusteko. Horrela, maitemindu ginen arte. Orduantxe aldatu genuen programa! Kar, kar, kar... Ni hona etortzeko plana egiten hasi ginen. Lehenbizi, gonbidapenaren bidetik jo nahi izan genuen, baina ez zen erraza, nahi beste agiri eskatzen dituzte! Azkenean, ezkontzea erabaki genuen, paperak eskuratzeko biderik errazena zelako. Baina ez, hala ere, egun batetik bestera etortzeko! 2009ko azaroan, edo abenduan, ezkondu ginen, eta 2010eko martxora arte ez nintzen hona etorri. Lehenago etortzen ez zituzten utzi, ezkondata ere.

Zer iritzi zenion Euskal Herriari lehen aldiz etorri zinenean?

Oso arraroa egin zituztadan dena, galduta nengoen... Buruz prestatuta etorri nintzen, hala ere: "Europara noa, dena utzi behar dut, agur lagunak, bestelako hizkuntza bat ikasi beharko dut...". Euskara, alegia. Zaila iruditu zituztadan. Jartzen nuen belarrira, eta ezin euskararik ulertu. Gero, pare bat urte-edo egin nituen AEKn, Villabonan, eta orduan bai, ikasi nuen, eta hasi nintzen hitz egiten. Gaztelania ere hemen ikasi nuen! Hasieran, nire herrialdetik ekarritako portugosarekin moldatu nintzen. Bestalde, Senegalen ere turismo gidari ibili nintzen, ingelesa, portugosa, italiara... denak nahasten genituen, horretara ohituta geunden,

eta, dudarik gabe, elkarrekin komunikatzeko balio zigun!

Euskara ikasten jardun duzu euskaltegian... Oso garbi hitz egiten duzu...

Bai, ikasi eta gero! Kar, kar... Baina hasieran, euskaraz hasi, gaztelaniaz bukatu... Beti horrela! Zerbait esan nahi, eta euskaraz hasten nintzen. Baina, laster, behar nuen hitza ez zituztadan ateratzen, eta gaztelaniara jotzen nuen automatikoki, zuzen-zuzen. Etxean ere denetik egiten dugu, ateratzen dena! Andreak euskaraz egiten dit, baina, gainerakoan, hainbat hizkuntza nahasten ditugu gure etxean. Umeekin neu bakarrik nagoenean kreolera hitz egiten dut. Ama gure artean baldin badago, euskaraz, gaztelaniaz...

Kreolera esan duzu, baina usteko nuen mankanyera zenuela hizkuntza...

Ginea Bissauan kreolera da hizkuntza nagusia, huraxe da batak bestearekin komunikatzeko erabiltzen duguna. Etnia asko daude herrialdean eta, adibidez, hiriburuan, etniak nahasita dauden tokian, modernizazioaren habian, kreolera behar izaten dugu, estandarra, denok erraz elkar ulertzeko moduko hizkuntza. Etnia bereko kideak gertatuz gero, berriz, etniaren hizkuntza hitz egingo dute; gure kasuan, mankanyera. Nik, esate baterako, anaiarekin ari naizenean, edo Ginea Bissauko familiarekin, mankanyeraz egiten dut. Edo, hobeto esan, mankanyeraz hasten naiz, baina, bukatu, aldiz, kreolera edo woloferaz bukatzen dugu. Hiru hizkuntza ere nahasten ditugu elkarriketa berean. Norekin hitz egiten ari zaren ikusi behar.

Zure etnia, mankanyera da. Izena duzu Jorge... Nondik heldu da izen hori?

Jorge Naur naiz, mankanyerazko izena duzu. Moderno gara gu ere, moderno! Mankanyera izenak modernoak dira, Portugalen kolonia izan baitzen lurraldea. Etnia bakoitzak kanpoko kolonoek emandako izena du, baina, horrez gainera, berezko izena ere badauka. Nire kasuan, Jorge Naur naiz, aitonaren ezizena dut Naur. Berez,



“kultur zeremonia halako bat egiteko gai” esan nahi du. Horrekin lotuta dago, behintzat. Aitak, berriz, Jorge eta Naur, bi izenak aukeratu zituen niretzat.

“Modernoak” zarete zuek ere...

Ez dugula hemengoak ez bezalako ohi-turarik, esan nahi dut. Bat edo beste ez bada, behintzat. Esate baterako, amets arraroren bat egiten baldin badut, anaiari Ginea Bissaura deitu eta kontatzen diot. Anaia, han bizi baita, ametsak interpretatzen badakien baten batengana joango da, kontatuko dio, eta ametsak interpretatzen badakien hark nire ametsa irakurriko du. Anaiari zerbait esango dio, eta hark niri. Eta horrek lagundu egingo dit. Hemen ere oso modernoak gara, baina ez dago horrelakorik. Han horrelakoxeak sinesten ditugu oraindik. Adibidez, esaten dute gure txikiak nire ama hilaren arima duela. Gure txikiak bi hilabete baino gehiago pasatu zituen lo ondo egiten ez zuela, eztulka, sustoka... “Han galdetuko dut, esango didate zerbait!”. Eta arrebak galdetu zuen, eta hari gure herrian esan zioten erremedioa-edo zertan zen esan zidan niri. Eta hartu nituen arroza, esnea eta horrelakoak, han ibiltzen ditugun gauzak, alegia, eta umearen ondoan ipini eta zeremonia txiki bat egin nuen, ama hildakoaren arimari esanez ez geundela ahaztuta eta hau eta hori eta hura. Orain umea pozik dago, zortzi hilabete ditu, txikia da, baina txapeldunaren pare dabil! Honekin esan nahi dut ezin ditugula gure ohitu-

rak egun batetik bestera galtzen utzi, nahiz eta Europan bizi garen!

Zertan da mankanyeraren egoera zuen herrialdean?

Bizi-bizirik ez dago, baina bizirik bai, behintzat. Etxearen arabera, esango nuke. Andre-gizonak mankanyak baldin badira, mankanyeraz hitz egingo dute, seguru. Baina etxean etniak nahastuta baldin badaude, kreoleraz hitz egingo dute. Man-kanyera jendearen etxeetan hitz egiten da gehiena, belaunez belauen dator gure hizkuntza. Eta, bestalde, oraingo egunean, 2010. urtetik hona-edo, Senegalgo unibertsitatean hautazko hizkuntza gisa eskaintzen dute mankanyera. Hizkuntza onartua da, eta zabaldua dago Ginea Bissaun, Senegalen, Boli Kostan... Ganbian ere bai, ze Portugalek Ginea Bissau kolonizatu zuen garaian, bertako batzuek handik alde egin eta oraingo Ganbian kokatu ziren. Familiak osatu zituzten eta hizkuntzari eutsi zioten, eta hainbat kultur ohiturari ere bai. Jantzkerari dagokionez, adibidez, ezkontza edo hileta baterako jantzekoak bereziak dira...

Diozu belaunez belauen datorrela mankanyera, etxean hitz egiten dela gehiena. Eta hemen, nola ikusi duzu euskara?

Hemen, azpiegiturak eta gauzak bai, baina ez da euskaraz hitz egiten. Guk ez dugu horrelako azpiegitura eta gauzarik, baina geure hizkuntza erabiltzen dugu... Deigarria da, bai. Hain aurreratuta dago



JENDEKIKOAK

“Mankanyak oso sozialak gara, eraman errazak, baina gure artekoak. Ikerketa zenbaiten arabera, zaila da mankany etniako neska bat beste etnia bateko kideren batekin ezkontzea. Ez dago ondo ikusita. Neska mankany bat nekez ezkonduko da mandinga, fula edo balanta etniako inorekin, haien kultura eta ohiturak gureak ez bezalakoak direlako, eta haietako- ren batekin uztartuz gero, zeure usadioak utzi, galdu, eta haienak zeureganatu behar dituzulako”.

TRATU TXARRAK

“Paperak lortzea beti da zaila guretzat, migratzaileontzat. Nire kasuan, jiraka eta bueltaka ibili ginen ni hona etorri ahal izateko. Batera joan, bestera joan... Denbora eman genuen. Eskatzen dizute paper bat, tramiteak egiten hasten zara, lortzen duzu, baina ordurako, igual hiru hilabete pasatu dira eta kadukatuta balego bezala da. Ez dizula balio esaten dizute, beste agiri bat eskatu behar duzula... Eta, bitartean, beti da ‘Itxaron!’”.

herrialde hau, eta jendea ere borrokatzen ari da euskararen alde, baina ez da ikusten. Nik AEKn ikasi nuen, eta euskaltegi barruan euskara entzuten nuen, jakina. Baina kalera irten eta ezer ez. Kolonizazioa ere hor da, ezta? Ondo dago hizkuntza bat baino gehiago jakitea, baina hitz egin... euskaraz, ezta?

Zurekin, behintzat, hitz egin liteke euskaraz, Ginea Bissaun jaiotakoarekin...

Horrela da mundua! Eta hemen, berriz, bertako askok ez dakite euskaraz, edo baldin badakite, ez dute hitz egiten. Bartzuetan amorrazioa ematen du, eta niri ere ematen dit! Hainbeste kontu eta,

azkenean, erdaraz! Euskaldun-euskaldunak, igual, eta seme-alabekin gaztelaniaz! Herriaren zimentuak omen direnak, eta gaztelaniaz? Ginea Bissautik etorri nintzen, euskaraz ikasi dut, eta bertakoak ez du ikasiko? Zentzurik ez du, ezta? Edo zer da, eskueran daukala eta ez diola baliorik ematen? Ez dakit...

Erraz ikasi zenuen euskaraz?

Ez, zaila izan zen, zaila! Hizkuntza batzuk banekizkiela etorri nintzen, eta horrek bidea erraztu zidan, baina, hala ere, zaila egin zitzaidan euskara, oso zaila! Kar, kar... Ez daukazu beste hizkuntzarik harekin konparatzeko: nondik jo, zer esan nahi duen, aditzak... Gehiegi! AEKn ikasi nuen, baina euskaltegian baino gehiago, etxean ikasi nuen, Josunek [emaztea] beti euskaraz egiten dit-eta. Ariketak egiten ere asko lagundu izan dit beti, eta kalera irten eta euskaraz egiteak ere lagundu dit. Baita zahar-egoitzako lanean, Tolosan, euskaraz egiteak. Han lanean sartzeko hizkuntza eskakizunak dituzte. Profilak. Eta nik B2a atera nuen.

Hara, bestea!

Bai, bada! Eta azterketa egitera joan, eta neu nintzen afrikar bakarra. Gehienak he-

mengoak ziren, euskaldunak, lanarengatik agiria behar zutenak. Nik, zahar-egoitzan lanean hasi eta hilabetera egin nuen proba. Azterlaria etorri zen, azterketa egin, gaintitu, eta titulua jaso nuen. Kar, kar... B1 titulua atera nuenean, ahozkoa besterik ez nuen egin. B2a ateratzeko, ahozkoa eta idatzizkoa, biak. Idazlana ere egin nuen, eta atera nuen B2 titulua! Eta gero gerokoak! Gauza bat gutxiago! Orain, bizitzea tokatzen da, lan egitea, etxera soldata ekartzea... Etorri eta bost urte egin nituen etxetik kanpoko lanik gabe, alaba txikia zaintzen beti. Lehen bi urteak, bat-etez ere. Noiz edo noiz joan izan nintzen non edo non zerbait margotzera, biltegiko lanen bat egitera, altzariak muntatzera... Denetik egin nuen. Gero, zahar-egoitzan hasi nintzenean, besterik izan da.

Hamaika urte gurean, zer moduz?

Ondo, ondo. Alde positiboak hartu behar dira beti gogoan. Hementxe gaude, osasuntsu... nahiz eta egoera txarra izan, pandemia eta hau eta hori eta hura, ondo gaude. Noizbehinka, soldata eramaten dut etxera, sartutako orduen arabera betiere. Eta horrelaxe. Josuneren ama bizirik da, eta hark ere laguntzen digu, ahal duena. Etxea ordainduta

dago, ez daukagu hipotekarik...

Guk bezala hitz egiten duzu: etxea, hipoteka, amamaren laguntza...

Kolonizatuta nago ni ere, euskaldunek kolonizatuta, euskaraz hitz egiten! Zer uste zenuen, bada? Kar, kar...

Ez dizugu neke handirik igartzen, gure herrira egokitu behar izan duzunean...

Ez da zaila izan. Lana izatea da inportanteena, zeure soldatatxoa irabaztea, zeure buruaren jabe izatea, aldamenekoari ezer eskatzen ibili beharrik gabe bizi ahal izatea... Ondo nago hemen, baina askotan akordatzen naiz nire herriaz, badut herrimina. Nahi nuke hara joan! Esate baterako, iaz joan nahi genuen, baina ezin izan genuen, pandemia eta beste. Hiru urte daramatzagu hara joan gabe, eta bi urtez behin joaten saiatu gara orain artean. Hilabete igaro han, familia ikusi, klimaz gozatu, eta buelta!

Izan duzu momentu txarrik, bazterketarik, arrazakeria zantzurik?

Bai, izan dut horrelakorik. Ergelen kontuak beti. Baina mundu osoan daude ergelak... ●

GIPUZKOAK BADU ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000 gipuzkoarrei esker,

European desberdintasun maila txikienetarikoa

duen lurraldea
izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa



Sintomak eta sendabideak



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Beti gertatzen zaigu antzera. Politikan ez da ona horren sineskorra izatea, bestela ziria sartzen digute behin eta berriro. Zertaz ari naizen? Hara, duela gutxi, eta negoziazio luze eta katramilatsuaren ondoren, sinestarazi ziguten Katalunian, azkenean, Gobernu *independe* bat osatu zela, ardura-karguak *fifty-fifty* banatuz eta *president* kargua adostuz. “Bazen garaia! Azkenean bete da hauteskundeen emaitzetatik zetorren mandatu logikoa: gehiengo independentistari dagokion gobernu independentista osatu da!”.

Inozoak gu, handik egun gutxitara lehertu baita lapikoa, kartzelatik bertatik, indultuaren esperoan zegoela, zabaldu baitzuen gutuna Oriol Junqueras ERCren buruak, independentziaren aukera bera lurperatzeko moduko lurrikara probokatuz. Ondorengo erreakzioek, bai Katalunian bai Madrilen, eman digute seismoaren neurria. Aldiz, Euskal Herrian isiltasuna izan da nagusi. Agian ERCren jarrera honek toki oso deserosoan jarri ditu aurretik aliatu estu kontsideratu eta berarekin besarkaturik agertzen zirenak. Orain inork ez du Oriol Junquerasen ispi-luan agertu nahi, nonbait.

Ulertzekoa da. Zintzotasun intelektualetik, Junquerasen azken jarrera hori guztiz onartezina delako. Ez soilik berak eta bere kideek oraintsu arte irmo defendatzen zutenaren guztiz kontrakoa delako. Hori baino urrunago ere, oraingo posizio politiko horrek ez duelako inolako kohe-

ERCren jarrera honek toki oso deserosoan jarri ditu aurretik aliatu estu kontsideratu eta berarekin besarkaturik agertzen zirenak. Orain inork ez du Oriol Junquerasen ispi-luan agertu nahi, nonbait

rentzia logikorik bere horretan, eta hau Junquerasek berak ere jakin behar du. Aldebakarreko ekinbidea guztiz baztertzen duzula iragartzen baduzu eta esan gatazka larria elkarrizketaren bidez, -konponduko duzula, norekin eta Estatu espainiarrarekin, balizko elkarrizketa horretara inolako indarrik gabe zoaz. Ahaztu independentzia. Ahaztu erreferenduma. Ahaztu Espainiak nahi ez duen edozein helburu. Indultua eta beste ezer gutxi lortuko duzu. Eta puntu.

Hori guztia horren nabarmena bada, nola jantzi du ERCK bere jokabide politikoa orain arte? Bada, *bigarren denborako independentzia* dei daitekeen teoriaren bidez. Oraindik orain ez dugu independentziara jauzi egiteko aukera objektiborik, baina orain aldekoen kopurua handitu behar dugu, zabaldu, eta bigarren aldi batean, demagun 20


urte barru, izango da aukera. Teoria bixi eta funtsik gabeko hau gure etxean ere aurkitu dugu azkenaldian, ERCren aliatu edo jarraitzaileen artean. Zer gertatzen da praktikan “teoria” honen garapenean? Bada, portaera politikoa eta are hizkera bera ere aldatuz doala; jada ez da horrenbeste independentziaz mintzatzen, eta honen orde subira-tza, burujabetza, erabaki-ahalmena eta era horretako kontzeptu anbiguoagoak erabiltzen dira. Azkenerako, Estatuan den gobernu bat edo beste hobesten da, eta hura lagunduz, Estatuari bera ri laguntzen zaio egonkortzen, eta horrela ahaztu egiten da praktikan gure Estatu propioaren aldarria. Ez da beharrezko ikusten. Horren orde, txandako gobernuarekin negoziatzen dira egoera lazgarrienen hobekuntzak, direla indultuak, direla preso direnen egoerak arintzea.

Orduan, zertara dator herritarrei independentzia promesak egitea, batez ere hauteskunde bezperatan? Zertara dator gehiengo independentistako gobernuak osatzea? Zertara parlamentuetan gehiengoak soberanistak direla gorai-patzea? Hitz egin dezagun argi: kale mobilizazio sendorik gabe, Madrileko txandako gobernu desegonkortu eta dantzan jarri gabe, geure balio eta nazio-helburuei tinko eutsi gabe, independentzia ez da inoiz benetako aukera izango eta ez da sinesgarria izango. Dagoen Estatu horren subditoak izango gara, ez badugu independentziara joan nahi. ●

7.800 milioi baino gehiago eta gorantz



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

7.800 milioi lagun pilatzen gara munduan gaur gaurkoz. Horrela esanda, ez berorik, ez hotzik, akaso. Baina, zenbakiak ikusita, igoera esponenzialaren tamaina igar dezakegu: 1950ean 2.600 ginen; 1987an, 5.000; 1999an, 6.000. Eta, estimazioen arabera, 2050ean 9.700 milioitara hel gintezke; 2.100ean, 11.000 milioitara.

Antropozeno garai honetan mundu eta biziarentzako arriskurik handiena garen gizakion hazkundearen ondorioak begien bistara azaltzen ari dira aspalditik. Kontsumitzea, zikintzea eta suntsitzea *leitmotiv*-tzat duen espezie honen igoerak jadanik sortu dugun hondamendia areagotu eta azkartu baino ez du egin, espezie berberaren milioika eta milioika indibiduo bizi baino, bizirauteko itzaropenari eusten diotela.

Pentsatzen dut horregatik lazten zaizkidala gorputz osoko ileak jaiotza-tasa hauspotu nahi duten deiak entzuten ditudanero.

Jaiotza-tasa arazoa dagoela esaten duten gehienek ez dute egiten gazteei –eta nagusiagoei– umeak ekartzea galarazten dieten lan eta bizi baldintza negargarriak buruan, edo emakumeon jardunaldi bikoitzen zaman pentsatzen, are gutxiago lan erreproduktiboaren

kostu humanoak birplanteatzeko asmoarekin. Jaiotza-tasaren arazoa arazo zaie, arazo demografikoa den heinean. Eta ez gara engainatuko, demografia koadratzea buruhauste handia da herrialde guztientzat.

Baina demografia jaiotza tasatik harago badoa, zer dela eta, orduan, tematze hori? Halako diskurtso gehienek herrialdeak birpopulatu nahi dituzte, bai, baina bertako ume zuriz, jakina, Orbanen Hungarian bezala.

Bien bitartean, Ipar-Mendebalde zuriak munduko gero eta zonalde gehiagotan bizitzea ezinezkoa egin du. Desplazatuak ere milioika zenbatzen dira, eta horretan ere ez gaitzen engaina: inork uste al du hemendik hamar, hogeit, hogeita hamar urtera, etzidamu, alegia, ia 10.000 milioi lagun garenean, errekurtsio naturalak eskuratzeko guda, lehia geopolitikoa, sistema kontsumista-kapitalista deuseztaturik egongo direla? Nahiz eta berde koloreaz mozorroturik, triskantza gogoa eta biziarekiko destaina izango dira gidariak berdian-antzean.

Atzerantz begiratzeko deiek eta iragana mitifikatzen duten diskurtsoek ere urduritasuna sorrarazten didate. Emakumeon egoera ez da sekula hobea izan iragandako sasoieta. Urduritzen nau, era berean, zelan doan “askatasun

liberala” zabaltzen esparru gero eta gehiagotara, benetan aukeratzeko parada bagenu bezala edo gure “nahiak” bideraturik ez baleude moduan, eta zelan doazen beste balio eta borroka batzuk iruditeria kolektiboan lausotzen, hala nola independentzia, historikoki emakumeon borroka nagusienetako bat izan dena eta, datu guztiek adierazten dutenez, erdiestetik urrun gaudena.

Gorbatadun botereak demografia arazoak jaiotza tasan zentratu konpondu nahi dituenean, has gaitzen emakumeok dardarka. Azpitestua argia da: bete ezazue zuen papera. Eta has daitezela, era berean, euren lurretatik ihesi dabiltsan eta azal ilunagoa daukaten guztiak ikaran, atek zabaltzeko asmorik ez baitago.

Demografia herrialde barruko mugetan kontrolatzea, batez ere, erronka ekonomikoa da. Demografia mundu mailan aintzat hartzea biziraupen erronka da. Planeta finitua dela ondo mamituta daukagu, baina, antza, kostatzen zaigu erreparatzea zer nolako ondorioak dauzkan horretan espeziearen etengabeko hazkundea. Izurrite honek irakatsi behar zigun koordenada zabal-tan pentsatzea eta aritzea ezinbestekoa izango zaigula hemendik aurrera. Ez dirudi hala izan denik. ●

Ikasketen homologazioaren labirintoa



SHEIDA BESOZZI
IKERTZAILEA

Ikasketak homologatuta izatea *sine qua non* baldintza da, ez zizuten esan?". Aishak ez zekien homologazioa edo, hala badagokio, Pakistanen egindako ikasketen baliokidetasuna lortzea hain zaila izango zenik, 2012an Euskadira iritsi zenean. Hona iristean enplegu duin bat lortzeko edo ikasketekin jarraitzeko oztupoak aurkitu dituzten emakume-migratzaile guztiak pertsonifikatzen ditu Aishak. Aishari eta beste hainbati esan ez ziotena da ikasketak homologatzeko prozesua urteetan luza daitekeela, izapidea hasten denetik.

Ikasketen homologazioa, prozesu luzea izateaz gain, ez dago denen eskura. Izapidearen gastu ekonomikoa eta horrek dakarren prozedura, bai hasteko garaian, bai bitartean, iritsezinak izan daitezke askorentzat. Izapide hori Hegoalde globaletik datozen migratzaileei eta, bereziki, emakumei kalte egiten dieten gailuetako bat baino ez da. Horien gainean daude, hein handi batean, adineko eta mendeko pertsonen zaintzak EAEn. Bidez Bide elkartean arreta berezia eskaintzen diete lan egiten duten etxeetan 24 orduz bizi diren emakume langileei. 2009an sortu zen elkarte, eta, hein handi batean, Euskadin bizi diren emakume migratuek osatzen dute. Bidez

Bidek lan handia egiten du laguntza behar duten pertsonen aholkularitza emanaz beren ikasketak eta prestakuntzak homologatzeko eta baliozkotzeko erronkan. Esparru hori jorratzen duen elkarte bakarra da erkidegoan, eta duela gutxi ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko Parekatu aholkularitza programa patentatu du, EAEn bizi diren emakume migratuei zuzendua.

Estatu espainiarrean eta, ondorioz, baita Euskadin ere, ikasketak homologatzeko oztupoa arazo handia da migratzaileen komunitatearentzako, eta gutxi hitz egiten da horretaz. Carmen A. Cares Mardonesek eta Cecilia Themme Afanek Emakunderen 2020ko laguntza ekonomikoarekin argitaratu berri duten txostenean ohartarazi bezala, emakume migratuen ehuneko handi bat, bereziki Hego eta Erdialdeko Amerikatik etorritakoak, birkualifikatuta dauden lanpostuak betetzen ari dira. Egituraren konplexua ikusaraztea eta egoera horretan dauden emakume atzeritarrei bidea erraztea dira Bidez Bideren helburuetako batzuk. Elkartearen lanari esker, emakume askok beren ikasketak aitortzeko prozeduratan murgiltzeko laguntza jaso eta beren bizi-baldintzak hobetzen ari dira. ●

Telefonoz



UXUE APAOLAZA

Dena telefonoz hasten da, eta telefonoz amaitzen; onenean. Zure lehen deia ondoan, erizainak deituko dizula esango dizute. Tira, zuk medikuarekin hitzordua hartzeko deitu duzu, baina ea. Azkarregi da haserretzeko, eta gaixorik zaude (edo dago, adibidez, zure haurtxoa). Erizainak esango dizu koronabirus-proba, parasetamol, ez atera etxetik. Eta medikua? *Ezateraetxetik* erremedioak ez du errezeta beharrik, beraz, zuk edo haurraren arnasestuak medikurik ere ez. Bestela, auskultatu, plakak, han eta hemen ukitu, estutu... lehengo medikuen erritualei nolabaiteko konfiantza bazenien, nork daki zergatik, bada, *colaboraciónpublicoprivada*. Zuri, espazio zabal eta aireztatuetan bizi direnengana

irits daitekeen kate bat has dezakezun kutsatze-bektore horri, medikuak bihar deituko omen dizu: baina berriro erizainak egiten du (beste koronabirus-proba bat, ez azkena). Eta, aizue, egia da, sukarrak kiskaltzen egon zaren guztietan, bizirik atera zara.

Baina zure auskalo zenbatgarren deian erizainari edo idazkariei oihuka amaituko duzu, ostu egin dizutelako lehen arreta, muturren aurrean, egun argiz. Eta horrek hil egiten du. Lineaz bestaldean, mutu entzungo dizu langile susmagarriak etxean eusteko telefono-agentzia bateko telefonista bihurtu duten langileak. Horretarako dago, zure haserrea hortxe, behe-behean, langiletik langilera deskarga dezazun. Telefonoz. ●

Azala lodia, eta ez naiz epaile kubatazalez ari



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
ZINEGOTZIA

Espainiar Justizia kolonialak Bilbon duen sukurtsaleko togadun azal lodi batek ebatzi du euskara ezin dela lan publikorako baldintza izan, Irungo Udalean udaltzainen lan poltsa osatzeko. Jakina, aipatu ere ez du egin behar izan, ezarria dugulako, denok badakiguna: udaltzain guztiek nahitaezkoa dutela gaztelaniaz jakitea. Espainiak Euskal Herriaren eta euskaldunon aurkako zapalkuntza ozen adierazitakoekin bezala egiten du isilean pasatakoekin ere.

Espantuka agertu dira EAEko agintean berrogei urte luzez ari diren -zertan, zuen kontu- eskuindar erregionalistak, epailea arauen aurka ari dela esanez. Inork gutxik gogorazi die, ordea, araudi horrek berak ahalbidetzen duela langile publiko berri guztiek euskaraz ez jakin behar izatea; Iñigo Urrutia izan da salbuespena: "Egungoa baino lege adierazpen argiagoa behar dugu; zurian beltz gera dadila funtzio publikoan lan egiteko bi hizkuntzak jakin behar direla, euskara eta gaztelania".

Espantuka agertu dira EAEko agintean berrogei urte luzez ari diren (zertan, zuen kontu) eskuindar erregionalistak, epailea arauen aurka ari dela esanez

Edonola, ohituak gaitu PNVk salbuespenez edo geroratzeez urardotzen, ustez, paperean tinko jasotako araudia. Adibidez, EH Bilduk bultzatuta, Toki Entitateen Legean jaso zuen hirigintza egitasmoen ebaluazio lin-

guistikoak egiteko beharra, eremu euskaldunenak babesteko asmoz. Bada, Donostiako eremurik euskaldunenetakoa den (% 61) Añorgan, PNVk 637 biztanle gehituko dizkie egungo 2.247 añorgatarrei, 248 etxebizitza berri eginez, eta horrek hizkuntza inpakturik ez duela izango ebatzi duen ebaluazio linguistiko baten babesean. Non dago tranpa? Txostenak ez du Añorgaren gaineko inpaktua aztertu, hiri osoaren gainekoa baizik.

Alkate berberak, epaile horri kubatarik atera beharrik izan gabe, ezinbesteko kasuetan soilik baliatzeak den euskara plangintzako salbuespen bat baliatu du erabakitzeak, bigarren aldiz agintaldi honetan, euskararik ez dutela jakin beharko udaldioroko eginbehar gehituei aurre egiteko hartuko diren errefortzuko udaltzain batzuek. Azala behar da urtero gertatzen den zerbaiti irtenbidea eman ordez, salbuespen bat hain lotsagabeki baliatzeak.

Baina ze gaiztoa den togadun kubatazalea (*ironik mode on*). ●

Basherrri
SAREA
OPINIONARIO KONTSUMO TALDEA ETA KOOPERATIBAK

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta **amalurra zainduz**

655709043 | info@basherrisarea.eus

ehz

1996
2021

UZTAILAK 2·3·4 JUILLET

IRISARRI NAFARROA BEHEREA
EUSKAL HERRIA

ZEA MAYS **CHILL MAFIA** **POTATO**
RUPER ORDORIKA & MUGALARIS
PROLETER **TORHEIT** **FÉTICHE**
TIKTARA **KUARTZ** **RÜDIGER**
ENTREXATAK **PHYSIS VS NOMOS**
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
HITZALDI, TAILER & EZTABAIDAK

ARROSA SAREA

20 URTE

SINTONIAN

ETA LIBRE

Euskal Herriko irrati libreak elkartzen dituen sareak bi hamarkada bete ditu ekainean, irrati-ekosistema gertukoa, askotarikoa eta euskalduna indartzen. Elkar-laguntza dute oinarri.

 SANTIAGO CANALES

HORDAGO Erreportaje hau Hordagok argitaratu du eta
Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Euskal Herriko euskarazko irrati- Arrosa Sareak 20 urte bete ditu ekainean. 2001ean Herri Mugi! ekimenak herri mugimenduen topaketa antolatu zuen Barrian (Araba), eta hainbat irrati libre elkartu zen jardunaldi haietako komunikazio batzordean. "Sintonizatu" egin zuten. Ulertu zuten lankidetzari eutsi behar ziotela, baita aurrera begira ere. Handik gutxira, sorrerako bilera iritsi zen Euskal Herria Zuzenean jaialdian, Arrosan (Nafarroa Beherea). Herriaren izena hartu zuten sarerako. Hogei udaberri geroago, Euskal Herri osoko 25 irrati osatzen dute sarea eta astero 60 programa inguru partekatzen dizkiote elkarri. Tokian to-

kiko irrati librean ahalegin bateratua da, alternatiba bat indartzeko, enpresa publiko eta pribatuek nagusiki osatutako dialean. Euskaraz.

Ia 20 bat urte lehenago, lagun batzuk, kazetaritza ikasleak, beren irratsaioak grabatzen hasi ziren Bergaran (Gipuzkoa), Bilboko Tas Tas – egun 97 irrati- eta Gasteizko Hala Bedi irrati-esperezien beroan. Horrela jaio zen Txapa Irratia, Bergarako irrati librea. Iñigo Herreros soinu teknikaria da eta ia hasieratik ari da proiektuan. Lehenik, talde batek lokal bat utzi zien eta, ondoren, udalak lagatuko beste bat lortu zuten. "Ordenagailu bat lortu behar dugu, hau *kristona* izango da", esan zion Herrerosi



lagun batek San Martzial jaietan, Barriako topaketak izan eta gutxira. Ordenagailua eskuratu eta, berak joaterik izan ez bazuen ere, kideak Behe Nafarrora joan ziren eta Arrosa Sarearen jaiotzan hartu zuten parte.

"Guretzat, Arrosa ezinbestekoa izan da hasieratik, programazio-parrila osatzeko programak partekatu ahal izatea ezinbesteko laguntza izan da", dio Herreros. Txapa oso irrati aldakorra da, pertsonak sartu eta irten egiten dira, baina beti dago ordezkorik. Herreros lagun batzuekin musika saio bat egiten hasi zen, baina orain irratiaren funtzionamendu teknikoan ari da laguntzen. Bost musika disko grabatuta zituen CDA-



KINZONA

rekin oroitzen da oraindik, behin eta berriz jartzen zuten programazioaren hutsuneak betetzeko. 37 urterekin, Txapa Irratiak hogeii irratsaio baino gehiago partekatzen ditu Arrosa Sareko gainarako irratiekin, eta elkartrukeari esker edukiz bete ditzake programazioaren 24 orduak, egunero.

Iraitz Gesalaga Arrosa Sareko koordinatzailea da eta hamabost bat urte daramatza Zarauzko Arraio Irratian parte hartzen. Proiektu txikienei saioen zerrenda betetzen laguntzeaz gain, irrati arteko saio-trukeak bozgorailu gisa funtzionatzen du; irratsaioen hedapena handitzen du. "Duela hogeii urte hausnarketa egin zen: irrati lokal eta libre

“

Gurea bezalako herri txiki batean hainbeste irrati egoteak zerbait bizia dela esan nahi du”

Iraitz Gelesaga

asko dago, baina atomizatuta daude”, azaldu du. "Euskal Herrian distantzia psikologikoak ditugu, eta batzuetan fisikoak ere bai, mendiak adibidez, herri baten eta bestearen artean. Horren on-

dorioz, askotan ez dugu jakin ere egiten ondoko herrian zer gertatzen den”, gaineratu du. Arrosa Sarea distantzia horiek murrizten saiatzen da, elkartzeko gune bat izaten.

Bergararik lerro zuzenean bederatzi kilometrora, Irimo mendia gaindituta, KKinZona Irratia dago, Urretxu-Zumarragako irrati librea. Haritz Berasategik, beste kide batzuekin batera, *Gaur Egur* magazina ekoizten du. Irratia gaztetxean dago, eta duela hamar urte baino gehiago bere inguruan ibiltzen zen jende batzuek makarrak eta alaiak egiten hasi zuten, Berasategiren hitzetan, "pentsatzen dugunari zabalpena emateko". Berehala irratiara ere jo zuten iritziak, ideiak, kriti-

kak eta ilusioak zabaltzeko.

KKinZonako kolektiboarentzat –ize- na garaiko txantxa bat da, "kakaztu zue- na"-ren laburdura-, irratia hedabide bat gehiago da, besterik ez; baina, irratia bat baino gehiago ere bai: "Proiektu komu- nikatibo komunitarioa". Irratia mar- txan jartzeaz gain, fanzineak argitaraz- ten dituzte maiztasun zehatzik gabe, komiki batzuk eta bi film *amateur* ere egin dituzte. Komunikatzea izan da beti funtsezkoena. "Irratiaren indarra hur- biltasuna da, tokian tokikoa. Herriko kolektiboek gu kontuan har gaitzaten saia- tzen gara, eta guk haiek, informatzeko", laburbildu du Berasategik. "Urretxu eta Zumarraga ez dira Goierri, eta eskualde- ko hedabideren batek bertoko albisteak argitaratzen baditu ere, hutsunea zegoe- la sentitu genuen eta interesatzen zai- gunarekin betetzea proposatu genuen".

Komunikatzeko grina hori eta bes- te kolektibo eta herri mugimenduekiko harremana oso garrantzitsuak dira Ge-

salagarentzat. Arrosa Sarearen bizitza- ko bi hamarkaden balantze positiboa egin du. "Sareak hazten jarraitzea eta irratia existitzen jarraitzea, zailtasun guztiak gorabehera, garaipena da", adie- razi du. Arrazoiak bilatzeko, jatorrira jo du. "Gurea bezalako herri txiki batean hainbeste irratia egoteak zerbait bizia dela esan nahi du. Beti egon gara herri mugimenduekin oso lotuta. Gure erre- alitateak kontatu behar ditugu, gure ikus- pegietatik, eta horretarako bitartekoak behar ditugu, bestela, guk ez badugu egi- ten, beste inork ez du egingo", dio Hala Bedik Gasteizko Alde Zaharrean duen lokalean.

ASKOTARIKO UHINAK

Lankidetzat bai, baina irratia bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz, ohartarazi du Gesalagak. Ez da ideia soil bat, praktika ere bada. Irrati bakoitzak bere ahalm- naren arabera ordaintzen dituen kuote- kin finantzatzen da Arrosa Sarea. Diru

horrekin webgunea mantentzen dute, edukiak koordinatu, astean magazin bat ekoitzi eta bi pertsonaren soldatak ordaintzen dituzte, bata lanaldi erdian eta bestea lanaldiaren herenean. "Kontra- tuak beste gauza batzuetatik libratzen zaitu, baina ez du horretaz bakarrik bi- zitzeko aukerarik ematen. Lanaren za- tirik handiena militantea da", aitortu du koordinatzaileak, Arrosan soldatapean dauden bi pertsonetakoak denak.

Ez dira gauza bera Laixiar Irratia (Iu- rreta, Bizkaia), irratietan gazteena eta sarera bat egin duen azkena, edo Gas- teizko Hala bedi eta Naiz Irratia –lehen Info7 zena, komunikazio pribatuko enpresa batekoa eta Hegoalde osoan emititzen duena-. Askotariko sarea da: gaitasunak, irratia ulertzeko moduak, inguratzen gaituenari begiratzeko eta kontatzeko erak. Baita desberdintasun politikoak ere. Zerbait naturala da Ge- salagarentzat, Arrosa espazio zabala baita. Irrati guztietan izaten dira ez-



ARROSA SAREA

Arrosa Sareko kide batzuk 2019ko jardunaldi feministetan Durangon.

Bilbo Hiriko Ane Zabala kazetaria.



GABRIEL ARISTI EUSKALTEGIA

tabaidak, gehienek komunitarioa izatea baitute helburu. "Askoz gehiago da batzen gaituena banatzen gaituena baino", azpimarratu du Arrosa Sareko koordinatzaileak.

Arrosaren bereizgarritasuna da irratien artean partekatzen dituzten saio guzti-guztiak euskaraz direla, nahiz eta zenbait irratitan gaztelaniazko saioak ere emititu. Euskara eta uhinek okupatzen duten lurraldea –Euskal Herria– dira elkarrearen oinarriak.

Leo Bueriberik gidatzen eta ekoizten du *Zebrabidea*, Arrosako irrati guztietan emititzen den magazina. Haraxeago doa bera: "Elkarbanatzeak, irratien artean ematen dugun laguntza horrek bereizten gaitu irratia egiteko beste modu batzuetatik. Familia sentimendua dago, badakizu besteak hor izango dituzula laguntzeko". Elkarlanean aritzea, edukiak, esperientziak eta baliabideak partekatzeaz ari da. Elkarri laguntzea, azken finean. Bueriberi Hala Bedira hurbildu zen lehen aldiz, *O no será* feminismoei buruzko saioaren eta *Hizpide* programaren kolaboratzaile gisa.

Zebrabidea, neurri batean, lankide-tza horren emaitza da. Saioaren edukiak hainbat irratiren parte-hartzeaz elikatzen dira. Gainera, gai askori buruzko kolaboratzaile sarea osatua du: ekonomia, literatura, musika... Hedabide lagunei ahotsa ematen diete, adibidez, ARGIA aldizkariaren asteroko aurrerapenarekin. Eta gizarte-mugimenduek ere badute beren espazioa, hala nola BALA kolektiboak sexu-disidentziez hitz egiteko duen tarte. "Albisteak edo elkarriketak gaurkotasun politikoak markatzen ditu", azaldu du Bueriberi saioko esatariak. Herri mugimenduen, noski.

OIHANEKO LEGEA

"Frekuentzia modulatu (FM) oihaneko legea da. Indartsuenak, emisio potentzia handiena duenak, emititu egiten du, eta pikutara gainerakoak", laburbildu du Gesalagak. Mundutxoan ohikoa den analogiara jotzen du. Irrati bat lizentziarik gabe sortzea, etxe huts bat okupatzea bezala da, baina kasu horretan uhinak dira okupatzen direnak. Lehenik eta behin, dialean espazio huts bat aurki-

“

Elkarbanatzeak, irratien artean ematen dugun laguntza horrek bereizten gaitu irratia egiteko beste modu batzuetatik”

Leo Bueriberi

tu behar duzu, eta hobe bizilagunik ez baduzu edo enbarazu egiten ez badiezu. Inork bota nahi ez zaituen bitartean, alegalaren linboan emititzen jarraituko duzu.

Kasu honetan, orografiak irrati libreen alde jotzen du. "Mendi asko dago eta arrazoi teknikoengatik ohikoa da herri batetik bestera frekuentzia aldatzea. Herrietan nahiko erraza da lekua aurkitu eta hor mantentzea. Hirietan,



Arrosa Sareko asanblada bat, 2019an Urretxuko gaztetxean.

JON URBE / FOKU

aldiz, zailagoa da", azaldu du Arrosako koordinatzaileak. Irrati libreak helburutzat izan behar al du lizentzia publikoa izatea, diru-laguntzak jasotzea? Arrosan, irrati bakoitzak erabakitzeke autonomia du. Are gehiago, saiatu izan direnei ba-besa eman die.

Ez da KKinZonaren kasua, ezta Txaparena ere. Biak eroso sentitzen dira euren herrietan, hamarkadak daramatzate lizentziarik eta diru-laguntzarik gabe emititzen, arazo handirik gabe, eta "inoren menpe ez egotearen" askatasuna daukate. Baina kontrakoa ere gertatzen da. Bilbo Hiria Irratiak hogeitau urte baino gehiago daramatza lizentziarik gabe, programazio osoarekin euskaraz, Bilbo metropolitarratik Bilbo metropolitarrarentzat. 1997an, Zenbat Gara kooperatibak irrati jarri zuen martxan, Kafe Antzokia ere ireki ondoren, Bizkai-ko hiriburuan euskal kultura sustatzea helburu zuen aisialdirako areto, jatetxe eta taberna.

Ane Zabala kazetaria da eta irrati entzutuen eta egiten gozatzen du. 2003an

Bilbo Hiria Irratira hurbildu zen, Radio Euskaditik kaleratua izan ondoren, eta besoak zabalik hartu zuten. Horrela hasi zen Piperpolis kultur saioa ekoizten, Galder Perezekin batera. Zabala irratiko koordinatzailea da egun.

2012an, lizentzia lortzeko Eusko Jaurlaritzak –Patxi Lopez buru zuenak– deitutako lehiaketa publikora aurkeztu ziren. 34 lizentzia atera ziren lehiaketara, horietako lau Bilbon: bi euskaraz eta bi gaztelaniaz. Hala ere bazekiten zaila izango zela. Bilbo Hiriak kritikatu zuen lehiaketak ez zituela irrati komunitarioak kontuan hartzen eta irrati komertzialen alde egiten zuela. "Esperientzia ez baloratzeak asko harritu gintuen. Guk urteak generamatzen emititzen. Gainera, irizpideek euskara zigortzen zuten nolabait, apenas gehitzen baitzuen punturik. Eta ez da ahaztu behar Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hizkuntza ofiziala dela", kritikatu du Zabalak.

Eusko Jaurlaritzak, jardunean jada, behin esleipenak eman eta argitaratu

“

Frekuentzia modulatu (FM) oihaneko legea da. Indartsuenak, emisio potentzia handiena duenak, emititu egiten du, eta pikutara gainerakoak”

Iraitz Gelesaga

ondoren, lehiaketa baliogabetzea erabaki zuen. Irrati batzuek auzitegietara jo zuten eta 2014an Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zien. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak, oraingoan Iñigo Urkullu buru zela, helegitea aurkeztu zuen Au-

zitegi Gorenean. Azkenik, 2019an, lehiaketa hartan emandako lizentziak banatzera eta prozesuaren zenbait kostu ordaintzera behartu zuten Jaurlaritzak.

Arrosako bi irratik horrela lortu zituzten beren lizentziak. Hala Bedik bigarren dialerako baimena lortu zuen, Hala Bedi Bi, euskara hutsezkoa. Lehenengo, euskaraz eta gaztelaniaz emititzen duena, kanpoan geratu zen. Bestalde, Naiz Irratiak zazpi lizentzia lortu zituen. Bilbo Hiriak eta Tas Tas Irratiak ez zuten lizentziarik lortu.

Hori baino lehen, 1992an, Eusko Jaurlaritzak bere azken lizentziak eman zituen, eskumenak zirela-eta Espainiako agintariekin borrokatu ondoren. Zabalaren arabera, diala eguneratzea eta lizentzia gehiago lehiaketara ateratzea "patata beroa" zen, baimen bakoitzaren atzean interes handiak daudelako frekuentzia bat erabili ahal izateko. EAEn lizentziarekin emititzen duten irratik gehienak SER, Onda Cero edo COPE bezalako kate handietakoak dira, tokiko irratiekin kontzentrazio eta akordio prozesu baten ondoren.

Ane Zabalak salatzen duenez, euskal hiztunek dialean espazio bat galdu zuten duela bi urte, 2012ko lehiaketaren emaitzak gauzatu zirenean, zazpi urteko prozesuaren ondoren. Euskarazko irratientzat gordetako lizentzietako bat, 92.7 fm, ia programazio osoa gaztelaniaz emititzen duen SER kateko irratik bati esleitu zitzaion. "Euskarazko komunikazioan erreferenteak behar ditugu. Demografia hutsagatik bada ere, Euskal Herrian euskaldun gehien dituen hiria gara. Bilbo metropolitarran milioi bat pertsona inguru bizi dira, baina agian hizkuntz-komunitate gisa ez dugu hain argi ikusten. Horregatik, agian hemen ez da beste leku batzuetan bezain erraza euskaraz bizitzea", dio kazetariak. Dialean, irratik gehien-gehienek gaztelaniaz emititzen dute, gutxi batzuk elebidunak dira, eta bost baino ez euskara hutsean emititzen dutenak. "Beste behin ere, euskara galtzaile", nabarmendu du Bilbo Hiriko koordinatzaileak.

HODEIAK ETA DIALAK

Arrosa Sarea sortu zen egunean, 2001ean, Internetek hamar urte bete zituen. Hogei urte eskasetan, informazioarekin, kulturarekin eta, oro har, hedabideekin erlazionatzeko ditugun moduek aldaketa sakonak jasan dituzte, sarearen eta komunikazio-teknologiaren eskutik. Eta irratia, ezin bestela izan, ez

dago errealitate birtual berri horretatik kanpo.

Bilbo Hiria Irratia, adibidez, bere webgunetik streaming bidez zuzenean emititu zuen lehen irratia izan zen, 2006an, Ane Zabalak harro azaldu duenez. "Ordutik egiten dugun guztia hodeian gordetzen da, libre eskura daiteke hor. Artxiboaren gainerakoa -aurreko guztia- ere lekualdatzea pentsatu genuen, baina agian larregi izango zen. Hemen, gure estudioetan, jada ez dugu ezer gordetzen", aitortu du, urteetan pilotutako artxibo kopuruari erreferentzia eginez. Orain, eduki guztiak zerbitzariaren batean gordetzen dira datu moduan.

Garai berrien jakitun, Arrosa Sareak irratia ekoizteko eta entzuteko modu berriei ekitea jarri zuen iaz erronka. Ordutik, mugikorretarako aplikazio bat jarri dute martxan, eta bertatik streaming bidez konektatu daiteke sareko edozein irratirekin. Gainera, edukietan hiru podcast gehitu dituzte, nahiz eta ez diren irratiek sortuak.

"Podcasten aldeko apustua egin behar da, jendeak entzun egiten ditu, nahiz eta emisiorik gabe, zuzenkorik gabe, irratia bere xarma galtzen duen", uste du Herrerosek, zeina Txapa Irratian Arrosak sortutako edukiak kudeatzen ere aritu den. "Guk argi daukagu, FMn jarraituko dugu". Bueriberiren ustez formatu berri horiek aukerak eta entzuteko moduak zabaltzen dituzte, agian, hobeto egokitzen direnak daramagun bizi-erritmoetara. "Gauza bat gustatzen zait: gelditu zaitezkeela. Lehenago irratia eskaini ahal zenion denbora hori agian ez daukazu orain. Gaur dena da presa, baina orain entzuten egon zaitezke, utzi, eta gero berriro ekin. Horrek ere badu bere magia", aitortu du, ahaztu gabe betiko irratia xarma: "Nahiz eta zuzenkorik egon gabe, agian ez den hain magikoa".

Berasategirentzat, berriz, podcastak, sare sozialak eta irratik digitala ez ziren disrupzioa izan. KKinZona Irratia Internet bidez hasi zen emititzen eta handik denbora batera lortu zuten frekuentzia modulatuaren espazio bat hartzea, beren kabuz estudio bat muntatu ondoren, autogestionatuta. "Jendea hor baldin badago, hor egon behar dugu. Garrantzitsuena entzutea da", dio kolektiboaren esperientzia eta filosofia laburbilduz. Kontatzeko istorioak eta partekatzeke mezuek dauden bitartean, irratik komunitarioek soinu librean emititzen jarraituko dute, auzotik mundu osora. ●



Aurreko ikasturtean galdu zena galdu da, urteak beharko dira hutsune horri buelta emateko

Ikasturte berezi hau nola aurreikusten zuten kontatu ziguten azaroan hiru ikastetxetako zuzendariak. Ikasturte amaieran berriz elkartu ditugu, protokoloen eraginkortasunaz eta neurri polemikoenez, hutsune eta soluzio pedagogikoez, baliabideez, aurtengo ebaluazio irizpideez eta ikasleen egoeraz hitz egiteko. Solaskideak, Gurutz Sanzberro Donostiako Lauaizeta ikastola publikoko zuzendaria, Mirentxu Ibargarai Seaskako Hezkuntza zuzendariordea eta Nekane Lasa Iruñeko Frantzisko Deuna eskola publikoko zuzendaria.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikasturte hasieran egin genuen mahai-inguruan hitz gakoetako bat izan zen: baliabideak. Iritsi al dira azkenean?

Nekane Lasa: Nafarroan Haur Hezkuntzan 20 ikasle gorako taldeetan irakasle bat gehitu dute; Lehen Hezkuntzan irakasle herena [lanaldi heren bat] agindu zuten 20 ikasle gorako taldeentzat, baina egin dutena izan da maila guztientzat herena. Alegia, 4. mailan adibidez 20 ikasle gorako bi, hiru edo lau ikasgela egon berdin dio, 4. maila osoarentzat irakasle herena gehitu dute. Batez ere ikastetxe handiei eragin die okerren, eta baliabideak faltan bota ditugu.

Gurutz Sanzberro: Ikasle kopuru batetik aurrera irakasle bat (edo herena) erantsi dute EAEn ere, eta lagungarria izan da, bai, baina behin ikasturtea hasita iritsi dira (eta ikasturteko plangintza oso ezberdin egiten duzu baliabide batzuk ala besteak aurreikusten badituzu) eta gainera irizpide berak erabili dituzte ikastetxe guztientzat, ikastetxe batetik besterako egoera eta beharrak asko aldatzen direla kontuan hartu gabe (azpiegi-

tura aldetik, egoera sozio-ekonomikoari begira...). Lekuan lekuko egoerari ez erreparatzea hutsunea izan da.

Mirentxu Ibargarai: Guk ez dugu baliabide berezirik ukan. Zailena izan da irakasle bat konfinatu dutelarik ezin zela ordezkatu zortzi egun baino gehiagoko bajarik gabe, eta gainerako lankideek bete behar izan dute hutsunea, zama handituz. Irakasle zaurgarrientzat ordezkak proposatu zituzten, baina epe baterako baino ez, bi hilabetez, beraz irakasle zaurgarriek nahiago izan dute lanean segitu, eten batek ez zuelako zentzurik.

Aurreko ikasturte zoroaren ostean ikasturte honetan birkokatze, errefortzurako aukera izan al dute (behar izan duten) ikasleek?

Ibargarai: Lehenengo hiruhilekoa izan zen giltza, aurreko ikasturtearen diagnostikoa egin eta errefortzuak jartzeko.

Sanzberro: Babesgabeenak kolpatu ditu bereziki iazko egoerak, eta egia da horiei erantzuten saiatu garela errefortzuen bidez, baina gure mailan erantzun dezakegu, hutsune akademikoentzat eta

hizkuntza hutsuneentzat laguntzak jarri, curriculumak egokitu, familiekiko harremanak estutu... eta ikusi dugu hutsunea ez dagoela bakarrik eskolan. Familia askoren egoera sozio-ekonomikoa (eta animikoa) nabarmen okertu da, eta konponbidea integrala ez bada, hankamotz geratuko da. Oro har, akademikoki kolpatuen izan direnak sozialki ere kolpatuenak izan dira.

Lasa: Guk oso errealitate ezberdinak ditugu gure ikastetxean. Gaztelaniazko lerroan absentismo handia izan dugu, pandemiak eragindako beldurra medio, eta horrek tsunami txiki bat eragin du. D ereduan, curriculum eta maila dezente jaitsi da, eta programazioak berregin behar izan ditugu. Jarduerak moldatu dira errefortzua emateko eta eskolaz kanpo ere auzoetan ikasleei ematen zaien laguntza bideratu dugu. Baina Hezkuntza Departamentuak esaten ziguna, ikasturte honetan egin behar genuela aurrekoan egin gabe geratu zena gehi honi dagokiona, hori ezinezkoa izan da. Espazio-denbora horretan galdu zena galdu da eta urteak beharko dira hutsune horri buelta emateko.



Gurutz Sanzberro, Mirentxu Ibargarai (goian) eta Nekane Lasa (behean).

Nola moldatu zarete protokoloekin?

Lasa: Hasiera nahiko kaotikoa izan zen, hilabeteak pasa zirelako Hezkuntza eta Osasun departamentuek bat egin arte. Sail horiekin genuen komunikazioa ere hobetuz joan zen pixkanaka, baina halere oso nekagarria izan da, esaterako etxean egotea edo distantzia mantendu beharra (bai familientzat, bai ikasle eta irakasleontzat).

Sanzberro: Gurean ere hastapenak zoramena izan ziren protokolo eta kontingentzia planekin, baina pixkanaka ohitzen joan gara eta uste baino hobeto joan da. Bigarren Hezkuntzako ikasle txea gara eta ikasleek oro har ohiturak barneratu eta errespetatu dituzte. Positibo asko ere ez ditugu izan eta horrek lagundu du, ez gara ikastetxe handia eta zorzea izan dugu. Nekagarria izan da, dudarik gabe, baina ez dugu gela guztia konfinatu behar izan eta ez genuen inondik inora espero urte osoa aurrez aurre egingo genuenik, alde horretatik eramangarria izan da.

Ibargarai: Moldatu gara eta protokoloa

bete dugu, nahiz eta hainbatetan zentzurik ez ikusi protokolo horri. Gainera aldatzen joan da eta adierazgarriena da, adibidez, lehen hiru ikasle positiborekin

“ ”

*Musukoa izan da
eztabaidatuena.
Nire ustez, epe luzean
neurri horrek irauten
badu ondorioak
ekarriko ditu*

Mirentxu Ibargarai

ixten zela gela eta orain ikasle bakarrekin ixten dela gela guztia; ondorioa da egoera orokorrean hobetu egin den arren gela ixte gehiago ditugula.

Zein dira protokoloari lotuta eztabaida gehien piztu duten neurriak?

Lasa: Nafarroan, Haur Hezkuntzan ere musukoa erabili behar izan dute 3 urte-tik gorako umeek: gela barruan ez, baina jolastokira irten eta orduan bai, jantzi behar, beste taldeekin elkartu ez arren. Gurasoek ez zuten ulertzen eta ikuskariek mezu kontraesankorrek ematen zizuten. Azkenean Hezkuntza Departamentuak erabaki zuen ez zegoela erabili beharrik. Lehen Hezkuntzan ere zeresana eman du musukoak, komunikazioa ez delako berdina eta aurpegia ez ikusteak asko eragiten dio haur ugari.

Hamaiketako ikasgelan hartu beharra ere ez dugu ulertu. Batetik, jarduera gehienak kalean egiteko gomendioa; bestetik, otordua ezin ikasgelatik kanpo egin. Eta garbiketari eta garbiketarako produktuei lotuta ere nahaste dezente izan da. Azkenean, ikastetxe bakoitzak egin du ahal izan duena, ahal duen ongien.

Sanzberro: Gurean ere, ikasleak nagusiagoak izan arren (12-16 urte), mas-

kararen erabilera izan da kezka gehien sortu duena. Guraso asko kexu izan dira, hainbeste ordu maskara jantzita, batzuk gainera asmatikoak... Eta hori arintzeko saiatu gara jarduerak aire zabalean egiten, nahiz eta kanpora ateratzeko behar diren irakasle gehigarriak ez dizkigun eman administrazioak. Komunikazioa ere izan dugu kezka: positiboak eta konfinamenduak izan ahala, nola esan gurasoei modurik egokienean, babesa eta pazientzia transmitituz eta ez urduritasuna eta aztoramendua? Familien aldetik laguntza handia izan dugu, egia esan.

Ibargarai: Gurean ere musukoa izan da eztabaidatuena. Uste genuen bizpahiru hilabeteko kontua izango zela, baina azkenean ikasturte osoa eman dugu horrela, gela barruan nahiz kanpoan, hurrengo ikasturtean ere hala hasiko garela aurreikusten dugu, eta nire ustez epe luzean neurri horrek irauten badu ondorioak izango dira.

Aurreikusita zenutenarekiko, zer da okerren eta ongien joan dena?

Ibargarai: Ez genekien zer gertatuko zen, eta epe motzeko kudeaketa egiten joan gara, egunean egunekoa. Azkenean ikasturte osoa egin ahal izan dugu modu presentzian, eta hori zen gure helburu nagusia.

Sanzberro: Langile bat baino gehiago konfinatuta izan dugularik, ordezkapek kudeatzea konplikatu izan da eta egunak igaro ditugu ordezkorik gabe.

Lasa: Horri gehitzeko, klase guztiak gela bakarrean ematea ere negatiboa izan da (ez da egon Ingeles edo Musika gelarik, adibidez). Eta alde ona azpimarratzearen, burbuilak egin diren neurrian, talde-kohesioa asko landu da eta alde emozionalari asko heldu zaio. Inguruko parkeetara ateratzera bultzatu gaitu pandemiak eta hori ere esperientzia polita izan da.

Pedagogikoki nola eragin du eta zein soluzio joan zarete aurkitzen?

Ibargarai: Musukoa oztopo handia da interakziorako, batez ere hainbat gaitan, eta kanpora atera eta distantzia jarriz bilatu da soluzioa, adibidez. Bestalde, Seaskan, adin ezberdineko haurrak nahasten ditugu anitz jardueretan, baina aurten ezin izan dugu egin, burbuilak direla-eta. Hurrengo ikasturtean gelak nahasi ahal izatea espero dugu.

Sanzberro: Hiru bloke azpimarratuko nituzke: batetik, eduki, lan ohitura eta konpetentzietan izan duen eragina, bes-

etik euskararen erabilera (batzuek hilabetetan ez zuten harremanik izan euskararekin), eta azkenik emozional eta animikoki. Konplexua izan da horiek kudeatzea eta curriculumak eta programak egokitu behar izan ditugu, aurreko ikasturtean eskolan aurrez aurre ez egoteak hutsunea utzi duelako. Tutoretza lana handia izan da eta elkarlana eta elkarrekin izan ditugu funtsezko gakoak.

Lasa: Bai, ezohiko urtea dela gogorarazi eta lasai hartzea izan da abiapuntua, nahiz eta azkenerako mila saltsa eta proiektutan sartu garen. Halere, mezua hori izan da: ikasleekin ahal dugunera arte iritsiko gara eta lasai egon behar dira. Erritmoa aldatu behar izan dugu.

“ ”

Oro har, akademikoki kolpatuen izan direnak sozialki ere kolpatuenak izan dira. Konponbidea integrala ez bada, hankamotz geratuko da

Gurutz Sanzberro

Curriculum eta erritmoak egokitu dituzue. Ebaluatzerako orduan ere malguago jokatu ahal izan duzue aurten?

Sanzberro: Bai, ebaluazio irizpideak moldatu behar izan ditugu, curriculum moldatu dugun heinean. Baina iaz administrazioetik esan moduan zuzenean ikasturtea gainditu zuten ikasleek (salbuespenak salbuepen), eta orain Hezkuntza sailak malgu ez jokatzeak ez du zentzurik, adibidez beharra duen hainbati ukatu zaiolako Aniztasun Batzordeko taldeetan sartzera (zailtasuna duten ikasleek titulazioa eskuratzeko jarraitzen duten ibilbidea), horretarako ikasturteren bat errepikatua izan behar dutelako eta iaz ez zutelako errepikatu.

Lasa: Gure ikastetxean promozio zuzena izan zuten iaz ikasle guztiek, eta ikasturte honetan hainbatek zailtasunak ditu. Gainera, Hezkuntza Departamentuaren kanpo-probak beste urte batzuetako berdina izan dira, eta halako azterketetarako

mailarik ez da egon. Ezin da eskatu eman ezin dena. Ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako azken maila bukatuko duten ikasleak ez dira aurreko ikasturtekoekin konparagarriak, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek kontuan hartu beharko dute hori datorren ikasturtean. Bertikalki eragin du honek guztiak, baita hurrengo urteetarako ere. Ikastetxe eta irakasle taldearen esku utzi da ebaluazioa, eta gurean adosteko zailtasunak eragin ditu.

Ibargarai: Iaz ez ziren brebeta eta baxoa egin, eta ikasturte honetan brebeta egingo da eta baxoa modu berezian egingo da, arlo batzuk urtean zehar egindako lanaren kontrol jarraikiaren bidez, eta beste batzuk azterketa bidez. Irakasleak behar-beharrezkoak diren konpetentzietan zentratu direla pentsatzen dut, baina egia da oro har ez dela curriculumari dagokionean arintzerik izan Ipar Euskal Herrian.

Nola ikusten dituzue ikasleak ikasturte amaieran?

Lasa: Opor beharrek. Egokitzen jakin dute, baina jolasteko, atsedean hartzeko eta normaltasunez aritzeko gogoz daude. Ongi daude, baina ikastetxean ospatu ohi ditugun jaiak-eta esaterako ez ditugu egin, eta hori sumatzen da. Nekatuta daude, “pixka bat gehiago, pixka bat gehiago...” izan delako agintariengandik jasotzen joan garen mezua, eta “pixka bat gehiago” hori luze doa...

Sanzberro: Egoerari oso ongi erantzun diote, baina nekatuta daude eta adin honetan espero zituzten gauza asko bertan behera geratu zaizkie, ikas-bidaia esaterako; ilusio asko zapuztu zaizkie.

Ibargarai: Berezik nerabeak oso gaizki ikusi ditugu, eurek hala adierazi digutelako, izugarri sufritu dutela. Klaseetara joan dira, bai, baina hortik kanpo ez dute ezer partekatu beste jende batekin eta harreman berriak behar dituzte adin horretan, dena dute sortzeko. Nerabezaroan ezinbesteko duten harremana ukatu zaie, eta frustrazio handia ikusi dugu.

Familiak nola bizi izan dute ikasturtea?

Ibargarai: Zaila izan da ikaslea positibo zenean edo kontaktu zuzena zenean, isolatu behar zuenez familiak horri erantzutea, zaintzarako erraztasunak eman dituzten arren. Hilabete batean kontaktu zuzena izan eta hurrengo hilabetean beste ikasle baten kontaktu zuzena izatea egokitu zaie batzuei.

Lasa: Fisikoki ikastetxe barrura ahalik



METROPOLLABERTIA.COM

eta jende gutxienak gerturatu behar duela-eta, beti ez da erraza izan harremana, baina saiatu gara arreta individuala bermatzen, eta batzuekin telematikoki ezin da egin, bai ala bai haiekin elkartu behar duzu. Oro har, oso ongi erantzun dute eta frustratu direnean ere, ulertu dute ikastetxeek ahal duten guztia egin dute-la, gauza asko ez dagoela gure esku.

Sanzberro: Hasieran familia batzuk beldur ziren (etxeko egoerak baldintzatuta, sarri), baina ikasturteak aurrera egin ahala tentsio maila jaisten joan da, bidea egiten gindoazela ikusita. Aurrez aurreko harremana lehenetsi dugu familiekin.

Eta zuek? Nola zaudete irakasleak ikasturte honen amaieran?

Sanzberro: Tentsio uneak izan dira, ziurgabetasun momentuak, ohi baino fronte gehiago izan ditugu irekita... eta nekea sumatzen da. Baina satisfazioa ere nabari da, lortu dugulako aurrez aurrekoari eustea.

Lasa: Irakasleak ez gara jada lehen bezala elkartzen, klaustroak ere distantzia mantenduz eta musukoa jantzita egiten dira, eta horrek guztiak arrastoa uzten du, nekatuta gaude.

Ibargarai: Gurean bilerak eta formazioak bideo-konferentziaz egin dira, eta horien muga argiki sentitu dugu, ikasturte osoan beti bideo-dei bidez aritzea nekagarria izan baita. Udaberriaren aurrez aurreko bilkurak berreskuratu genituen, distantzia mantenduta, gogoetatzeke aurrez aurre aritzea beharrezkoa delako. Ikasturte bukaera honetan irakasleak pizten ari direla esango nuke, egoera hobetzen ari dela eta heldu den

ikasturtea pixka bat “normalagoa” izango den esperantzian.

Ikasturte honetarako zenituzten helburuak bete dituzue?

Sanzberro: Hiru helburu nagusiri erantzuten jakin dugula esango nuke: denon osasun fisiko eta mentalaren zaintza bermatzea, egoera honek ikasleengan sortu dituen hutsuneei erantzutea, eta aurrez aurreko klaseei eustea.

“ ”

Ikasleak nekatuta daude.

‘Pixka bat gehiago, pixka bat gehiago’ izan da agintariengandik jasotzen joan garen mezua, eta ‘pixka bat gehiago’ hori luze doa

Nekane Lasa

Ibargarai: Oso gutxitan gertatu dira gela ixteak, xantza izan dugu, eta presentzialki aritu ahal izateko helburua bete dugu guk ere.

Lasa: Ongi egin izanaren edo gutxienez ahal izan dugun ongien egin izanaren sentsazioa dugu, hein batean hezkuntza-komunitate osoak bat egin dugulako norabide berean.

Ze aurreikuspen duzue hurrengo ikasturterako?

Sanzberro: Hasi gara dagoeneko hurrengo ikasturtea planifikatzen, bada-kigu gainera hainbat mailatan baldintzatuta hasiko garela, baina gustatuko litzaiguke jakitea zein baliabide izango ditugun horretarako, ez dadin gertatu ikasturte honetan gertatu dena. Nahi dugu administrazioak entzun gaitzala, baina Hezkuntza Sailak ez du ezer esan, eta arriskua ikusten dut oraindik berezia izango den egoerari erantzuteko nahikoa baliabiderik gabe has gaitezkeela irailen ere. Eta berriz esango dut, honetan guztian lekuan lekuko komunitatea, ezaugarriak eta nahiak aintzat hartzea ezinbestekoa iruditzen zait, eredu bera batzuentzat baliagarri izango delako eta beste batzuentzat ez.

Lasa: Nafarroan protokolo bat aurreratu digute hurrengo ikasturterako, baina zalantza pila bat eragin ditu, ordutegiari dagokionez, adibidez, protokoloak dioelako modu batean hasiko garela eta urrian agian aldatu beharko dela berriz, edo agian urtarrilean... eta erantzun diogu ezin dugula horrela aldatzen aritu. Guztiaren atzean ikastetxe kontzertatuen presio handia dagoela uste dugu, arratsaldeko ordutegia mantentzeko.

Ibargarai: Iaz abuztu bukaeran eman ziguten neurri sanitarioen berri, beraz bada-kigu ez duela balio gehiegi aurre-ratzeak, irakasleek asko eman dute eta atsedean pixka bat merezi dute. Ikusiko dugu abuztuan zer gertatuko den. Maskararen erabilera malgutzea gustatuko litzaidake adibidez, gai sentsiblea da-eta. ●

PELBIS ZORUA

Patriarkatuaren gudu zelaia

Emakumeen* gaitzak dira gernu-galerak eta baginako lehertasuna, normalizatuta dauden gaitzak. Perineoko edo pelbis zoruko arazoen iturburuan indarkeria obstetrikoa eta sexu errepresioa daude maiz. Osasun sistema androzentrikoaren utzikeria salatzen dute pazienteek, baita fisioterapeuta eta psikologo feministek ere.

 JUNE FERNÁNDEZ  UXUE BEREZIARTUA

Emakumeei lubrikatzailea eta inkontinentziarako konpresak saltzen dizkieten iragarkiak ohikoak dira telebistan. “Zu zeu izan zaitzke” da konpresa marka oso ezagunaren leloa. Enpresa horren webguneko menuan “Emakumeen inkontinentziaren kausak” atalean sakatzen badugu, hurrengoak agertuko zaizkigu: Kalte neurologikoa – Arazo medikoak – Menopausia – Haurdunaldia – Gernu traktuarien infekzioa. Bat falta da: Patriarkatua.

“Hilekoarekin saldu diguten mezu berbera darabilte iragarki horiek: la-sai egon, normala da, jarri konpresa eta inork ez dezala nabaritu”, dio Juncal Alzugarayk, pelbis zoruan eta sexologian aditua den fisioterapeutak. Karreran piztu zitzaion haurdunaldiko eta erditu ondorengo fisioterapiarekiko interesa, baina oso informazio gutxi aurkitu zuen, gehiena ingelesez ala frantsesez, zientifikoa eta oso tonu hotzean idatzia. Erika Irustaren pedagogia menstrualean inspiratuta, gogotsu ekin dio tailerren eta sare sozialen bidez zoru pelbikoa-

ren inguruko dibulgazio lana egiteari. Liburuxka bat ere idatzi, ilustratu eta autoeditatu du, *Mi suelo pélvico* (Nire zoru pelbikoa).

ZAINDU BEHARREKO ALFONBRA


Liburuaren lehenengo kapituluan, pelbis zorua informazio anatomikoa ematen du: “Pelbisaren zoru estaltzen duen egitura muskular zuntzatsua da, perineoa bezala ere ezagutzen dena. Pubisetik kokxixsera doa, eta alboetan iskionetara, esertzen garenean ipurdian nabaritzen ditugun hezurtxoetara”. Hamaka formadun muskulatura honek erraiak eusten ditu, kortse antzeko funtzioa duen zeharkako abdominalarekin elkarlanean.

Animalia bipedoak bihurtu garenetik, lehen horma pelbikoa genuena egun zoru da eta grabitateak presioa areagotu du. Ondorioz, gizakiontzat tonua mantentzeak berebiziko garrantzia du. Bizitzan zehar emakumeen* zoru pelbikoa kaltetu daiteke, hamaika arrazoi medio: gorputz-jarrera okerra –esatera-

ko, makurtuta ibiltzeak presioa areagotzen du-; haurdunaldiaren, erditzearen eta erdiondoaren eragina, baita menopausiarena ere; inpaktu-kirolak praktikatzea edo haize instrumentuak jotzea; eztula edo idorreria kronikoak izatea; obesitatea, diabetesa, eta abar.

Ondorioz agertu daitezkeen arazo larrienak prolapsok dira: esaterako, hes-te lodiarene atal bat uzkitik irtetea edo umetokiko atal bat baginatik. Aitzitik, arruntena inkontinentzia da: perineoaren giharrek eraztun forma hartzen dute uretra eta uzkia besarkatzeko eta esfinter horiek ahultzen badira zailtasunak izango ditugu txizari edo kakari eusteko. Pertsona batzuek txiza galerak dituzte esfortzuren bat egiterakoan –doministikua, barrea, salto egitea, zama altxatzea-; beste batzuek larrialdiko inkontinentzia dute –esfinterrak ez du garaiz antzemango maskuria beteta dagoela eta gernuari bidea ixten saiatzen denarako, presioa handiegia da-; eta bien konbinazioa ere eman daiteke.

Baginak ere badauka bere eraztuna,



sexu-harremanetan zein erditzeko lanetan protagonismo berezia hartzen duena. Muskulatura horren mugimenduak lubrikazioa aktibatzen du. Lolak 45 urte ditu eta klimaterioaren ondorioz –menopausia aurreko eta ondorengo trantsizio aroa– zoru pelbikoan kontraktura du eta bagina lehortu zaio. Ondorioz, azken boladan gernu- eta bagina-infekzioak izan ohi ditu eta alua minbera dauka. Alzugarayen kontsultan aurkitu du

Osakidetzak eman ez dion arreta: masajeen, ultrasoinuen eta landareen (elorri horia) bidezko tratamendua baina, batez ere, enpatia eta samurtasuna.

Gizonezko bi ginekologoek esan zioten barne-genitalak ondo zituela eta eskaini zioten konponbide bakarra koitorako obuluen errezeta izan zen. “Baina ni ez naiz koitoaz ari! Ibiltzerakoan ere bulban ondoeza sentitzen dut eta bulba ez didate ezta begiratu ere egin!”. Behin,

hain zuen jasan ezina mina, larrialdietara jo zuela. Artatu zuen emakumezko ginekologo gazteak ulertu zuen bere gaitza, ondo aztertu zuen bere bulba eta fisioterapiaren beharra konfirmatu zion.

Lola psikologoa eta sexologoa da; prestakuntza horri esker bere gorputza ezagutzen du eta informazioa eta baliabideak ditu eskura. Kontziente da “aludun pertsona askok ez dutela zorte hori”, eta deitoratzen du osasun siste-

maren mezua zera dela: “Adin batetik aurrera emakumeok sintomatologia jakin batekin bizitzera ohitu behar dugula, mingarria bada ere”.

Alzugarayren ustez, arazoa da men-debaldeko medikuntza androzentrikoa dela: “Esaterako, klimaterio hitza ez da erabiltzen, soilik menopausia. Medikuek gehienek organoak baloratzen dituzte, baina ez dituzte gure sentipenak aintzat hartzen eta gure ondoezak asmakeriak edo psikosomatizazioak direla uste dute. Horrek sufrimendua areagotzen du eta hortik antidepressiboak hartzea pauso bat besterik ez dago. Dena dago lotuta, egiturazko indarkeria da”.

UTZIKERIA BIOLENTZIA DA

Erditu zara. Dena da berria, baita hanken arteko sentsazioak edota aluaren itxura ere. Emaginak puntuak begiratu-ko dizkizu eta asko jota Kegel ariketak edo hipopresiboak gomendatuko dizkizu. Ginekologoak ekografoaren bidez barne-organoak baino ez ditu aztertuko. Osakidetzak ez du balorazio fisioterapeutikoa eskaintzen eta nahi duenak (ahal duenak) kontsulta pribatu batera jo beharko du. “Hori da borroka: emaginek eta ginekologoen sexu-heziketa jaso beharko lukete eta zoru pelbikoaren ardura hartu. Horrez gain, eskualde bakoitzean fisioterapeuta espezializatu bat egon beharko litzateke”, aldarrikatu du Alzugarayk.

Oso errotua dago haurdunaldiak eta erditzeak berez pelbis zorua ahultzen duten ideia, baina erditze errespetatuen aditua den Estitxu Fernandez Maritxalarraren esanetan, zenbat eta fisiologikoa goa izan erditzea, orduan eta hobeto erreazionatzen du perineoak. “Esaterako, epiduralak egin dezake zoru pelbikoa behar bezain esna ez egotea, eta oxitozina sintetikoaren eragina ere iker-tu beharko litzateke”. Halaber, zehaztu du lesio larrienak episiotomiak sortzen dituela, hau da, umea ateratzeko baginako giharrak mozteak. Prozedura hori oso ohikoa da ginekologoaren jardunean, nahiz eta gehien-gehienetan beharrezkoa ez den eta Osasunaren Mundu Erakundeak eta Nazio Batuen Erakundeak bere ondorioak salatu dituzten. Beharrezkoak ez diren prozedurak inposatzea, eta beharrezkoak direnean ere, emakumearen adostasunik gabe egitea, indarkeria obstetrikoa da, nabarmendu du Fernandez Maritxalarrak. Emakume asko ez dira kontziente, medikuen kriterioaz fidatzen direlako, baina “asko ondorio fisikoak nabaritzen dituztenean

eta erdiondo oso momentu zaurgarriak dira, testuinguru neurohormonal oso berezia da eta garai horretan gertatzen dena iltzatuta geratzen da emakumearen eta haurraren gorputzean eta emozioetan. Gure gizartean nagusi den isolamendua gehitzen badiogu, amak lehen hilabeteak tortura bezala oroitu-ko ditu eta erditzeondoko depresioaren edo trauma ondoko estresaren nahastea agertu daitezke”, gaineratu du psikologo perinatal honek.

Esti irakaslea eta ekintzaile feminista da, baina orain dela gutxi ezagutu du indarkeria obstetrikoa kontzeptua. Ez dago ziur ea bere erditzean episiotomia justifikatuta zegoen, baina argi daukana da ez zutela bere adostasun informatua lortu. Berrogeialdia pasa zenean konturatu zen orbanak min egiten ziola. “Begiratu nuen nire alua ispiluaren laguntzaz eta okela zati arraro bat ikusi nuen, txarto josita zegoen edo”. Gizonezko ginekologoak, ordea, ez zion garrantzirik eman. Txori arrosa (mosketa arrosa) olioarekin igurztea gomendatu zion eta iruzkin matxista bat egin zuen, baginaren zurruntasunak senarrari plazera emango ziola. Hobera egin du, baina oraindik koitoan tentuz ibili behar du mina saihesteko.

Txiza-galerak ere sumatu zituen eta, urteak pasa ahala, okerrera egin dute, kuleroak bustitzeraino. Osakidetzako urologoak, emakumezkoa, maskuri hiperaktiboa diagnostikatu zion eta pastilla inhibitzaile batzuk agindu zizkion. “Ez ninduen miatu, ez zen ezta mahaitik altxatu”. Pilulek azalean erreazioa eragin zioten, ahoa oso siku sumatzen zuen eta batzuetan buruko mina ere bazuen. Esti ez zegoen bizitza osoan medikazioa hartzeko prest eta zoru pelbikoan aditua den fisioterapeutengana joan da bere kabuz azken urteotan. Bere eskualdeko ospitalean badago emagin bat maskuri hiperaktiboa artatzeko prestua, baina saio gutxi batzuk eskaintzen ditu. “Klase kontua da: ez baduzu saioak ordaintzeko dirurik, jarri konpresa eta aurrera”.

Eskolak ematen ari denean maiz korrika atera behar izaten du komunera. Bidaiatzen ere asko sufritu du, garraio publikoan eta hirietan apenas dagoelako komun publikorik. “Txiza ateratzen zaizunean oso txarto sentitzen zara, autoestimuan eragiten dizu. Emakume askok esan didate haiei ere gertatzen zaiela. Orduan, zergatik ez dugu honi buruz gehiago hitz egiten?”.

Lolak deitoratzen du osasun sistemaren mezua zera dela:

Adin batetik aurrera emakumeok sintomatologia jakin batekin bizitzera ohitu behar dugula, mingarria bada ere

hasiko dira ikertzen eta orduan sortuko zaie egundoko samina eta errua”.

Puntuen mina ez da episiotomiaren albo-kalte bakarra. Horren ondorioz, ezin eseri edo ezin ohetik altxatu dagoen amak arazoak izan ditzake edoskitzeko. “Erditzea



Azken azterketan ginekologo berriari bere historia kontatu zion, baina hark erantzun zion dena "normal" ikusten zuela, orbana itxita dagoela eta organoak bere tokian. "Sistema heteropatriarkalari interesatzen zaiona da guk umeak ekartzea mundura, funtzionalak izatea. Hortik aurrera, hor konpon gure minak eta gure txiza galerak. Utzikeria hori biolentzia da", salatu du.

PLAZERA, BIDEA ETA HELMUGA

Juneren erditzea fisiologikoa eta errepetatua izan zen. Emaginaren arabera, urradura naturalaren puntuak ondo sendatu ziren. Berrogeialdiaren ostean ginekologoak dena bere lekuan ikusi zuen. Gerora konturatu zen bagina zurrun eta minbera zuela, baina puerperioan murgilduta zegoenez eta bere sexu-harreman lesbikoetan penetrazioak protagonismo handirik ez zuenez, ez zen gehiegi kezkatu. Hilekoa itzuli zitzaionean ohartu zen ezin zuela ezta kopa menstruala sartu ere egin. Bere kabuz egin ohi zituen Kegel ariketak, badaezpada, baina Juncal Alzugarayren gana jo zuenean jakin zuen bere zoru pelbikoa ez zegoela ahul, hipertoniafikatuta baizik, baginan kontraktura zeukalako. Hori entzuteak antzinako orban ikusezin bat berririki zuen: gaztetan baginismoa izan zuen, mutil lagunekin behin eta berriro behartu zuelako bere burua desirarik gabe koitua praktikatzea. "Haien matxismoaren aurrean, nire aluaren erreakzioa ixtea izan zen", ohartarazi du.

Fisioterapeuta eta sexologoak kontsultan baginismo kasu ugari artatu ditu eta asko erditu ondoren agertu dira; izan indarkeria obstetrikoren ondorioz edo iraganeko traumak berpiztu dituelako: "Erditzea esperientzia basatia

da eta gorputzaren memoria aktibatzen du", argitu du. Bere esanetan, emakumeen sexualitatea zigortzen duen kultura matxistak eragindako aztarna da askotan baginaren kontraktura.

Estitxu Fernandez Maritxalarrek gaineratu du sexu-errepresioak, eguneroko keinuetan islatzen denak, -hankak gurutzatuta eseri, hilekoa ezkatuta, txiza egiteko baimena eskatu...- zoru pelbikoaren mugimendua eta oxitozina deitutako plazeraren hormonaren zirkuitua blokeatzen dituela. "Oxitozina orgasmoetan eta erditzean protagonista bada ere, kezkarria da gure iruditerian gehiago lotzen dugula erditzea episiotomiarekin plazerarekin baino". Horregatik, gidatzen dituen haurdun taldeetan adierazten du episiotomia saihesteko emaginek gomendatzen duten masaje perineal desatsegina era mekanizatuan egin baino, zentzu gehiago duela perineoa "plazeretik miatzea, ukitzea, sentitzea, eta erditzean klitoriaren potentziala ere ikertzea"

June aho bete hortz geratu zen Alzugarayk agindu zion tratamendua erekin: etxeko intimitatean, musika gozagarria jarri, dantzan hasi eta dardaragailu batekin zoru pelbikoa eta alua igurtzi. "Errehabilitazioan erabili ohi diren tresnak (espekuluak, korronteak, dilatatzaileak...) desatseginak dira eta nik sentitzen nuen trauma bat beste trauma batekin konpontzen ari nintzela", azaldu du fisioterapeutak. Hortaz, plazera eta autoezagutza dira bere metodologiaren bi gakoak: "Autoezagutzan baitago gure askatasuna, gure buruari eta gure osotasunari kasu egitean. Eta plazera izan beharko lukeelako beti bidea eta helmuga". ●



***Oharra:** "Emakume" idatzi dut, baina zuzenagoa izango litzateke aludun pertsonen edo emakume kategorია esleitutakoez aritzea. Bestetik, prostata arazoek txiza-galerak eta erektzio arazoak eragiten dituzte, eta maskulinitate hegemonikoak horien bizipena eta arreta baldintzatzen ditu. Baina zakildun gorputzen zoru pelbikoak beste erreportaje bat eskatzen du.

Harrotasuna
plazaratu
dezagun

Baztan aniztasunaren alde!

Baztango
Udala



GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIRAREN KRONIKA

Pedalei eraginez, pentsio duinen alde

Gipuzkoako pentsiodunen mugimenduko 20 bat lagunek egin zuten bizikleta martxa Gipuzkoan zehar maiatzaren 24tik 29ra. Hamasei bat txirindulari egunero aritu ziren, beste lau pertsona furgonetarekin eta kamioarekin, eta lantzean behin beste pentsionista batzuk ere biltzen zitzaizkien. Hemen duzu biran parte hartu izan zuen Joxe Iriarte *Bikila*-ren kronika.

 JOXE IRIARTE BIKILA  PENTSIODUNAK GIPUZKOA

MAIATZAK 24, ASTELEHENA

Pentsiodunen mugimenduan Orereta herri aitzindaria da. Handik abiatu gara 9:00etan ohiko lagunez inguratuta, dultzainero, zuziri eta parafernalia guztiaz horniturik. Atzean geratu da bi hilabete-ko antolakuntza lana. Gipuzkoako biraren bidea xehetasunez marrazteaz gain, herrietako taldeekin batera antolatu behar izan da zer ordutan iritsi herrietara, nondik ibili, non eta noiz bazkaldu, afaldu, lo egin, eta abar luzea; eta, garrantzitsuena, txirindulari talde egokia eta garraiolari ekipoa osatzea. Beraz, hori guztia ondo lotuta utzi ondoren, bidari ekin diogu.

Hasiara petrala dugu. Euripean, laster hezurretaraino blai gaude, oinak eta eskuak hotzez minduta, baina bihotza tau-paka eta burua txinpartaz beterik; eguraldi txarrari oihuz, aldarriz eta aurpegi ona jarriz erantzun diogu. Pasaia, Trintxerpe eta Donostia-Sagues egin eta atsedendaldia egin dugu ELAko, Steilaseko eta LABeko kideekin. Hernanin izugarrizko ongietorria prestatu digute, berdin Andoingo Goiko plazan, eta azken honetan

antolatzaileak udalarekin xextran izan dira, honek ez duelako baimenik ematen furgoneta eta kamioia plazan sartzeko. Tolosa osoari bira egin ondoren, plazan bukatu dugu, pertsona ugariaren txalo artean, Amaia Agirre bertsolariarekin, eta batukadaren burrunbaz.

ASTEARTEA 25

Zitzu bizian heldu gara Legorretaraino. Beasainen ordezkari sindikalak herri sarreran dira. Lazkao eta Ordizia ditugu ondoren. Azken honetan ongi etorria dugu merkatu plazan, Adur Ezenarro alkatearen eskutik, eta bertan, Segurako Iparra-Hegoa taldeak kozinatuta kristoren paella dugu gure zain, oraindik gal-gal. Ormaiztegi. Zer pentsatuko zuen Zumalakarregi jeneralak gurea bezalako zutabea ikusita? Gure aldarriak ez dira jada *Jainkoa eta Foruak*, pentsio duinak lortzea baizik. Izagako malda. *Erredios!* Zutabea nahikoa luzatu da eta nork bere ahalmenaren arabera eutsiz egin dugu gora, azkenean aldapa mendean hartuz. Zumarraga, Urretxu. Piruloa-ren plazan bukatu dugu. Ongietorri bikaina, festa

giroan, abeslariak eta guzti. *Mendizaleak* doinuarekin kantatu dugu: *Pentsionistak aurrera, goazen guztiok kalera, bizitza duinak lortzera, triaralaratriaralara...* Eta afari bikaina izan dugu, bertako taldeak egin (emakumeek kasu honetan).

ASTEAZKENA 26

Legazpiko bidean, suhiltzaileen harrera hunkigarria izan da. Patrizio Etxeberria jaun eta jabe zenaren Legazpigrado-ren garaiko sarrera itogarria eta zantarra igaro ondoren, herri eder batekin egin dugu topo. Irakasleen eskutik, eskoletako haurrek oihuka eta txaloka agurtzen gaituzte. Udanako aldapa Izagakoa baino arinagoa da; hala ere, arnasa estutzen zaizu ohi-turarik ez baduzu. Jaitsiera Oñatirantz, hauspoak beterik oihuka, bizi-pozez.

Oñatiko Foruen plazan herritar talde ederra dugu zain, tartean, ELA, LAB eta ESK sindikatuen banderak. Irteeran, suhiltzaileen egundoko zalaparta haien sirena eta tutuekin. Arrasate. Aita Menni Ospitaleko langileen protestarekin bat egiten dugu udaletxe aurrean. Bazkaldu eta gero Aretxabaleta, Eskoriatza



eta buelta. Antzuolako herriko plazan geldiunea. Eta azkenik, Bergara. Gorka Artola alkateak hitz adeitsuak luzatu dizkigu. Performance moduan kapitalismoaren harresiaren suntsiketa, langile, pentsiodun, feministak eta gazteak tiraka. Eta bi bertsolari, horietako bat da Maite Aristegi, baserritar sindikalista, Amaiurko parlamentari ohia Madrilen, eta gainera bertsolaria. Pentsioei buruzko hitzaldi interesgarria eskaini zuen Jesus Mari Soubiesek, Pentsionistak Araba taldeko kideak.

OSTEGUNA 27

Lehenengo geldi gunea Soraluze da eta handik Eibarreraino goaz. Untzaga plazan, II. Errepublika aldarrikatu zen toki historikoan izan gara. Elgoibarren jaia Maala plazan da. Rockero zaharren emanaldia lehenbizi eta, ondoren, bertsolari

ria argi eta garbi mintzo da: “Bidezkoa eta ederra izan da urte hauetako jarduna / bekatu al da galde egitea justiziaz zor zaiguna? / bildu gaitezen pentsiodunok, iritsiko da eguna / etsipenaren birusik gabe arnasa hartuko duguna”.

Debako bidean, Mendaroko eskolako hurrek “aititak datoz, aititak datoz” oihuka hartzen gaituzte. Aurrerago harrobi baten eremuan sartzen gara denak biltzeko asmoz, baina sarrerako ubidea estaltzen duen burdinazko parrilak duen hutsune batean sartuta, furgonetaren aurreko errobera lehertzen da. Lehenengo intzidentea. Errobera aldatu eta aurrera. Itziartik Mutrikura. Mutriku, herri polita bezain bihurria tropelean sartzeko... eta ateratzeko aldapatsua! Azkenik, Deba. Ongi etorri jendetsua eta harrera zoragarria prestatu digute. Gilen Garcia alkatearen ongi-etorria, musika eta guzti.

OSTIRALA 28

Hasi eta Itziarko aldapa. Kontrako eztrartik sartu zait. Okerrena ez da aldapa igotzea, gure ondoan pilatzen diren kamioi eta kotxeak egiten duten traba baizik. Tropelak geldi une bat egin du karabanari pasatzen uzteko, eta nik erabaki dut aurrera egitea. Harez geroztik, gure tropelak egiten duen harresiari esker, nire erritmoan lasai ederrean egiten dut goraino. A ze diferentzia! Eta jaitsiera, flipagarria! Umea bezala noa, pozik eta alai. Zumaia. Sarreran hainbat adinetako ikasleak ditugu, bidearen bi aldeetan guri txaloka. Zirrargarria da. Ongietorrian Jon Maiak –a ze luxua!– bertso zoragarriak eskaini dizkigu. Irteeran, DBHko gazte andana dago guri animoak ematen. Bai lagunak, gure eta zuen pentsioaren alde ari gara.

Laster batean Getarian sartu gara eta gero Zarautzen. Han ere, ongi-etorri bikai-



na Musika plazan, eta Andoni Egañaren bertsoek gure belarriak gozatu dituzte. Ondo bazkaldu eta berriro aldapa gora goaz, Orioko bidean. Aldaparekin borrokan, gure kolkoarekin marmarrean pixka bat damu, "gutxixeago bazkaldu izan banu"... Hil eta gero, salda bero. Oriotik barrena, bi ume koskor eta haien ama aurrelari lanean aritu dira.

Usurbilen gaude, Zumetaren muralaren aurrean, Agurtzane Solabarrieta alkatteak gure borrokaren aldeko hitzak utzi ditu eta Unai Muñoaren bertso ederrak gozatu ditugu. Azken eguna da eta kiroldegia dugu ostatu. Tolosan izan ezik, gau guztiak frontoi edo kiroldegietan eman ditugu; lur gogorrean eta esterillaren gainean gorputza nola edo hala egokituz. Esmatzerakoan komeriak. Urteek ez dute barkatzen. COVID-19 garaiko neurri gisa, ia talde osoak kanpin dendatan egin dugu lo gauero. Gainontzekoek bata bestetik urrunduta, izkinetan kokatuta. Alegia, segurtasun neurriak hartuta, gure gaua indioen tribu baten antzera antolatzen genuen.

LARUNBATA 29

Koronabirusak segurtasun neurriak hartzea eskatu digu, baina nork pentsatuko zuen furgonetak eta kamioi txikiak ere zaintza behar zutela? Nola jakin, gauaren babesean jendilajearen eraso jasango genuela eta lau gurpilak zulatuko zizkigutela? Udaltzainak ere zeharo harrিতuta daude Usurbilen hollakoak gertatzearekin, eta gainera gure

aurka. Dena konpontzeak atzerapena ekarri digu, baina azkenean abiatu gara, Zubieta eta Lasarte barrena, Donostia-ra sartzeko. Santa Katalinaren zubian Donostiako pentsiodunen taldekoen harriera. Altza eta Intxaurren auzoak ere zeharkatu ditugu. Euskal Herriko beste hiriburuekin batera, manifestazioaren ordua da. Egundokoa izan da, kontuan izanik oraindik pandemiak jota gaudela.

Gaurko langileen soldatak badu zerikusirik biharko pentsioekin; lan duina eta finkoa bermatzeak ere bai, eta gaurko gazteek jakin bezate, gure borroka haiena ere bada

Lehertzeko zorian utzi gaituzte Jon txoferraren berriak, txisteeak eta hamaika istorioek. Atzean utzi ditugu talde bizipenak. Nekeak eta pozak. Eta herrietako ekitaldiak, zeintzuen antolaketan lanetan emakumeen esku-hartzea oso nabarmena izan den. Hernanin izan

ezik, beste herrietako aurreko dantzari denak neskak izan dira. Eta Alarde tradizionalekoak oraindik ohartu gabe, tradizioa biziko bada, besteak beste, emakumeen eskutik izango dela, edo ez dela izango.

Orokorrean, esan dezakegu aipatu herrietako taldeak berpiztu eta aktibatu direla, eta aurrera begira jarri. Izan ere, manifestazioko agirian genioen bezala, "Toledoko Itunak eta Kongresuko bozketak pentsio sistema publikoa bideragarria dela agerian uzten duten arren, pentsioak murrizten dituzten erreformek bere horretan jarraitzen dute eta murrizketa berriei atea irekitzen dizkiete". Eta hori guztia gutxi balitz, pentsioak pribatizatzearen aldeko haize erauntsia dator Europatik.

Aste honetako emaitza ederrenekoak izan dira hainbat eragilerekin ehundu dugun harremana eta elkarrekin landu dugun sinergia. Sindikatuak, feministak, gazte taldeak eta eragile sozialak gure ondoan izan ditugu gutxieneko 1.080 euroko pentsioa aldarrikatzeko. Pentsio duin eta publikoa. Murrizketarik ez. Genero arrakalarik ez. Azken finean, gaurko langileen soldatak badu zerikusirik biharko pentsioekin; lan duina eta finkoa bermatzeak ere bai. Eta egun gazte direnak jakin bezate gure borroka haiena ere badela. Irakaspen bat izan da denontzat. Eta pandemiaren aurrean neurriak hartu, ez da txorakeria. Baina ez kikildu, ez uzurtu, ez desanimatu, borroka aurrera darrai. Lortu ahal da! ●

Izoztuta bizirik irautearen zientzia eta fikzioa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Siberia, duela 24.000 urte. Bdelloidea espezieko mikroorganismo bat, erresistentzia handiko animalia errotiferoa, Alaya ibaiko ur hotzetan izoztuta geratu zen. Berriki, zientzialariek animalia desizoztu dute eta, bizirik jarraitzeaz gain, asexualki ugaltzeko gai izan da. Lurzoruko Zientzien Arazo Fisikokimiko eta Biologikoen Errusiar Institutuko Stas Malavinek dioenez: “Ondorioa da organismo zelulanitz bat izoztu daitekeela eta hala iraun dezakeela milaka urtetan, eta gero bizitzara itzuli; zientzia fikziozko idazle askoren ametsa”.

Literaturan, Stanislaw Lem-en *Fiasco* nobela, zineman, Ron Howard-en *Cocoon* edo Jean Grey komikietako superheroia dira amets horren adibideetako batzuk. Eta guztietan gizakiak dira izoztu ondoren berpizten direnak.

Gizakiak eta ugaztun handiak izoztuta mantentzeko krionika deritza. 1773an Benjamin Franklinek eskutitz batean idatzi zuen agian etorkizunean posible litzatekeela gizakiak mendetan izoztuta gordetzea. Ia bi mende geroago, 1967an izoztu zuten lehen gizakia, 73 urterekin hil berri zen James Bedford, etorkizunean berpizteko itxaropenez. Walt Disney, aldiz, ez dago krionizatuta, mito hori zabaldu duen arren. 2002an izoztu zuten Ted Williams beisbol jokalaria da krionizatuta dagoen pertsonarik ezagunena. Baina krionizazio prozesua ez da oraindik itzulgarria eta, beraz, krionikaren emaitzak fikzioan kokatzen dira oraindik.



Bdelloidea espezieko animalia errotifero bat “berpiztu” da berriki, 24.000 urtez izoztuta egon ondoren.

Kriobiologia da tenperatura baxuek izaki bizidunengan dituzten efektuak aztertzen dituen zientzia. Duela 4.500 urte Egipton hasi ziren hotzaren efektu horiek aztertzen, eta Hipokratesek berak aplikazio saiakerak egin zituen. Gaur egun badakigu hainbat bakterio, bdelloidea bezalako animalia ornogabe txiki batzuek, zenbait igel espeziek, giza enbrioiek edota landare askok (eta haziek) izoztuta irauteko gaitasuna dutela. Kriobiologiaren aplikaziorik ezagunenetakoa Svalbardeko Munduko Hazien Bankua da. Norvegiako uharte horretan milioika hazi daude gordeta, hondamendi naturalak edo klima aldaketa bortitzak izanez gero,

galdu litezkeen landare espezieak iraunarazteko.

Kriobiologiako Zientzia Elkarteak 1982an erabaki zuen bere bidea krionikatik erabat banantzea, eta “etorkizunean berpizteko asmoz hildako gizakiak izozteko praktika oro” beren ikerketa eremutik kanpo daudela zehaztu zuten estatutuetan.

Siberiako aurkikuntzak aurrerapauso handiak eragin ditzakeela uste dute mikrobiologoek, baina lehentasunak garbi dituzte. Elikadura eta biodibertsitatea bermatuko duten haziak hobeto eta luzeago gordetzea garrantzitsuagoa da, 83 urteko beisbol jokalaria erretiratua berpiztea baino. ●

Caralgo balioen museo birtuala

Caral Zibilizazioaren Museo Birtuala mota horretako lehena da Perun. Zona Arqueológica Caral elkarteko zuzendari Ruth Shady-ren hitzetan, “Caral zibilizazioa gizarte garatu eta konplexua zen, denek ahalagina partekatzen zuten gizarte, onura soziala helburu”. Hala, duela 5.000 urteko kultura horren objektu adierazgarriak ikusteaz gain, museo bir-

tualak zibilizazio horren balioak bildu ditu: naturarekiko harremana, kolektibitatearen garrantzia, genero rola... Teknikoki sinplea eta mugatua da museoa, baina erabiltzaileari nabigaziorako aukera gutxi eman arren, arduradunek balio sozial eta etikoen mezua nabarmendu nahi izan dute. Horregatik, erakusketak “Ondo bizitzeko hausnarketak” du azpititua. ●



ZONA ARQUEOLÓGICA CARAL

Argazkiak, pertsonen ongizatea lantzeko

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Pertsonaren ongizatean lagungarri izatea bilatzen du IDo photography-k lantzen duen argazkigintza terapeutiko eta pedagogikoak: “Ez da psikologo edo terapeuta batek eman dezakeen laguntza, nik irudia erabiltzen dut pertsonen ongizatea bilatzeko, bai arlo profesionalean edo pertsonalean”. Enpresentzat, emakume taldeentzat eta norbanakoentzat ateratzen ditu argazki berezi hauek. Beti irriz agertzeko eskatzen ez digun argazkigintza ezagutu nahi?

ENPRESA ETA PERFILEKO ARGAZKIAK

“Enpresa batean produktua edo zerbitzua eskaintzen denean, nire helburua da produktu edo zerbitzu horien atzean dagoen pertsona ere erakustea” dio argazkilariak.

Sare sozialetan eguneroko bihurtu zaizkigu perfileko argazkiak. Horiek egiteko ere zerbitzua eskaintzen du IDo photographyk. “Horretarako eta enpresentzako, metodologia berezi bat erabiltzen dut”. Azaldu duenez, metodologia honen bidez bezeroak bere beharrekin konektatzen du. Adibidez, perfileko argazkia non ateratzea nahi duzun, eguneko zein orduan, zein girotan, nola nahi zenukeen jantzita agertu, zein kolorerekin inguratu nahi zenukeen zure aurpegia...

EMAKUMEZKOENTZAT TAILERRAK

“Hauetan bilatzen dena da emakume bakoitzak bere izanarekin, gorputzarekin eta irudiarekin konektatzea, gorputzean dauden eta kanporatu ditzakegun emozioei irudia jartzea”. Emozioei irudia jarrieta hobeto ulertu dezakegu zer gertatzen zaigun, nondik gatozen, zer nahi ditugun... “Emakumeok askotan besteren zaintzan asko inplikatzeko gara eta ez dugu gure buruarentzako denborarik hartzen. Saio horietan nire helburua da, hasteko, emakume bakoitzak bere buruari tokia egitea, elkar zaintzea”. Horretarako, segurua den marko bat eraikitzen dute elkarrekin, zeinetan ez den inor epaituko, elkarri partekatuko dizkieten beren bizipenak, eta entzunak sentituko diren: “Niretzat oso garrantzitsua da emakume horiek entzutea eta dauden momentuaren eta dituzten



beharren arabera erantzutea, irudi ariketak eta tresnak emanez”.

Egiten dituzten ariketen artean, badira bi motatako autoerretatuak: batetik, konektatu dugun inguruko zerbaiti argazkia ateratzea, izan ere, momentuko emozio bati ateratako argazkia izango baita paisaia, kolore edo forma hori. Beste autoerretatu mota, ezagunena, nork bere buruari aterako diona. “Oso terapeutikoa da aztertzea gure burua nola argazkitzen dugun, zein ikuspuntu-tatik... batzutan besteengan eman nahi dugun irudi horrek oso baldintzatuta izaten gaitu. Zer eramaten dugu argazkietara, besteek ikusi nahi dutena edo guk kanporatu nahi dugun irudi hori?”. Irudien bidez eta oso ariketa errazekin argazkiaren “B aldea” irakurtzen hastea da proposatzen duen jolasa.

ARGAZKILARITZA LASAIA

Pedagogikoa hitza behin baino gehiagotan erabili du bere lana deskribatzekoan, “izan ere, bidelagun funtzioa betetzen baitut. Ni ez naiz irakaslea, ez terapeuta, ez trebatzailea... ni ondoan egongo naiz, instrumentu batzuk emanaz. Ez dut esango zer dagoen ongi eta zer gaizki, bera joango da bere bidea egiten”.

Agerikoa da era horretako argazkilari-tza ez dela presarekin uztartzen: “Argaz-

kilaritza lasaia, pausatua da. Kontzientea, unean unekoa bizitzen duena. Pausa hartu, zure buruaz pixka bat pentsatu, barrura begirako horrekin konektatu eta kanpora begirako irudia argazkitzea da prozesua.

Ez dugu zergatik argazkigintzaz jakin beharrik, mugikorrarekin ere hartu ditzakegu irudiak. Oso eskuragarri dagoen modua da”. ●

“IDo
photo
graphy”

idophotography.eus

Zer egiten du: Enpresa zein ekintzaileei ikusgarritasuna lortzen laguntzen dien argazki zerbitzua. Tailer-formazioak, kolektibo edo norbanakoaren beharretara pertsonalizatutakoak.

Langileak: 1.

Egoitza: Hernanin.

Harremanetarako:

620 900 635

info@idophotography.eus

(H)asteko argazkia dut gustuko

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Duela gutxi jakin dut gure haurtzaroko irakasle batek gustuko duela Argia irakurtzea. Horixe duela asteko plazeretako bat. Aste-ko argazkia omen du gustuko. Besteren artean. Eta egia esan, nik ere atsegin dut atala. Hortik heltzen diot normalean aldizkariari. Indartsuak iruditzen zaizkit irudiak. Aktualak. Nazioarte mailako aldizkarietara eramaten dit burua. Galdetu dut zein den erredakzio-taldean atal honen inguruan egiten den balorazioa eta hona datuak.

Zerrendatu berri dituzte argazkitan zenbat eta zein herrialde agertu diren sail honetan, zein gairi lotutako irudiak izan diren, protagonista nor izan den, egileak nor izan diren eta testuak nork erredaktatu dituen. Kontent dira emaitzak ikusita, beti izanik hobetzeko zirriketua. *Beranduegi*-ren ondotik blogik bisitatuena da asteko argazkiarena.

Bilatzen ahalegintzen dira oreka bat beti, begiak betiko lekuetatik altxa eta protagonismoa merezi duten munduko beste hainbat txokotan fokua jarritz. Nazioarteko irudiak hogeita sei izan dira. Euskal Herrikoak beste hainbeste. Biak biltzen dituztenak hamaika. Eta nazioartean ez dira gehiegi errepikatu herrialdeak. Frantzia dago hiru argazkirekin sailkapen taulan lehen, AEBei bi aldiz eman zaie lekua, eta ondoren dira beste hogeita bat herrialde 2020ko urtariletik hona espazio hau astebetetz osatu dutenak: Israel, Honduras, Espainia, Kanaky, Libano, Venezuela, Hego Sudan,

Suitza, Katalunia, Kongo eta beste hainbat.

Koronabirusak izan du protagonismo handiena azken urte eta erdian. Hamabost aldiz izan da hizpide atal honetan. Errefuxiatuen gaiak eta euskal presoak jarraitzen diote zerrendan launa argazkirekin. Feminismoak eta hondakinek jaso dituzte hiruna astekari, eta aniztasun handia dago bat edo bi argazki eman zaizkien gaitan. Etxegabetzeak, kolonialismoa, multinazionalak, kalamuaren legalizazioa, antifaxismoa, euskara, kaleko artea eta abar luze bat.

Hogeita bat emakume eta hogeita lau gizon izan dira protagonistak. Biak agertu dira bederatzi argazkitan eta hogeita hamaika izan dira zuriak eta hogeita lau beste arrazetakoak.

Dani Blanco da etxeko argazkilaria eta honenak izan dira zazpi irudi. Beste hainbeste Foku-renak ekarri dira paperera. Baina badira Ekinklik, Ecuador Etxea, Idoia Zabaleta, Unai Beroiz, Jordi Borrás, Kauldi Iriondo, Hans Lucas eta beste hainbeste argazkilari. Eta hemen dago hutsunea. Jabetu zara, irakurle? Emakume bakarra dago egileetan. Hori du Argiak erronka. ●



ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Lehenago ere izan nintzen kide, gero, beste proiektu batzutarara pasatu nintzen, baina gaur egun, ez dut besterik ikusten"

Beasaingo Arantxa

"ARGIAren edukiak irakurtzen ditut, eta ulertzen dut asmoaren iraupenak sostengu ekonomikoa behar duela"

Zierbenako Asier

"Hizkuntza aberasteko beharrezkoa ikusten dut irakurtzea. Gogoko dut ARGIAko ikuspuntua"

Heraniko Aloña

AGENDA

Olatukoop ekonomia sozial eraldatzailearen sarea urtero moduan antolatu du

SARETZE EGUNA

Ekainaren 25ean Aiaraldeako Ekintzen Faktorian bilduko dira Olatukoopoko kide diren proiektuetako langileak. Besteak beste, Ekintzen Faktorian bisita gidatua egingo dute; Olatukoopera batu diren kide eta bazkide berriek beren proiektuak aurkeztuko dituzte; Olatukoopoko lantaldeen artean lantzen ari diren estrategia orokorra azalduko dute; eta elkar gehiago ezagutzeko dinamikak eta oturuntzak egingo dituzte. Bazkalostean, sorpresa.

KUKU KONTUTAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Aurten zeharo kezkatuta nago: kukuak ez du egin kuku. Egun pare batez entzun genuen, baina handik atzera kuku-soinurik ez dugu izan gure bailaraxoan. Kukutik kukura, urtero gaizki ohituta ginen nonbait kukuaren kuku-kukura, neguaren amaierarekin piztu eta egun luze-beroetan mututzen zen kantura.

Gurean kukuak zeresana emana du. Mugarri nabarmena ezartzen du egutegian. Kukua etorri eta eguna ederki luzatzen da, baita gehienon irria ere. Kulturaren eta hizkuntzaren seinale da. Hizkuntza kontuak beste batzuentzat utzi eta hona hemen kulturako batzuk.

Badakigu kultura kaosa dela, eta eskerrak, izan ere kaosik gabe zer kultura litzateke? Ba gure kulturako landareetan izugarritzko anabasa dugu: kukua gora kukua behera. Eguraldi aldaketak eta gure paisaiaren izerdi berritzeak ekartzen dute kukua udaberriko ekinozioan; kuku-belarrak (*Aquilegia vulgaris*) loreak ireki eta ubel koloreko "zatoz" goxo bat esaten dionean. Poetak, bere eromenean, alderantziz ikusiko du, kukua dator bere hegaldi bizkorrarekin paisaiak eta lorraldiak ernatzera. Hegaldi bizkor hori berezia du kukuak, ia dena bezala: arraren kantu hori, kumeak hazteko alferkeria eta horren ondorioz beste hegaztien habietan arrautzak jarri eta haiek parasitatzea... Nekazariari eta naturatik hurbil xamar bizi denari aukera polita eskaintzen dio kukuak, eta horrek ekarri du anabasa. Kukua hemen den garaian loratzen diren landareei jarritako izen



Kuku-prakak izen asko du gurean: asto lore edo astolili, kuku-lore, kuku-porru, joane-belar, azkutai, sukar-belar eta ditare-lore behintzat bai

anabasa. Izena jarri zaienekoa ez da ez izango anabasa, baina erabiltzaileok anabasten dugu landare izendegia.

Aipatu berri dugun kuku-belarrari esateko, beste bi izen behintzat ezagutzen ditut: laufraka eta zeinu-lilia. Laufraka, loreak dituen lau muturrengatik, eta zeinu-lili loreak behera begira ezkil itxura duelako, edo kukuari etortzeko egiten dion zeinuagatik, edo... Zeinu-belarra ere esaten zaio ama birjinaren eskularruari. Horren izen zientifikoa jartzera ez naiz auzartzen, baina guk kuku-prakak esaten diogunari (*Digitalis purpurea*) hala esaten zaio gu kolonizatzen gaituzten erdaretan: gazteleraz *guante de la virgen* eta frantsesez *gant de notre dame*.

Kuku-prakak izen asko du gurean: asto lore edo astolili, kuku-lore, kuku-porru, joane-belar, azkutai, sukar-belar eta ditare-lore behintzat bai. Astolili beste zenbaitzuei ere esaten diegu: mitxoletari (*Papaver rhoeas*), oin-lodi edo peoniari (*Paeonia spp.*), dragoi-muturrari (*Antirrhinum spp.*) eta anbulu gaizto edo lilipa arruntari (*Narcissus pseudonarcissus*). Mitxoletari ere kuku-belarra esaten zaio. Anbulu gaiztoa edo lilipa arruntari kukupe ere esaten zaio. Haritzean (*Quercus robur*) ere kukuari deitzen diote kuku-sagarrek, gero kukua mututzen denean kuku-balak bihurtuko dira.

A zer kuku-saltsa! Hizkuntzarekin aritzen direnei galde egin beharko diegu eta, kukupean hartuta, hiztegiak boroildu, kaosaren alde, noski. ●

XORTA

NAFAR PIRINIOETAKO
GARAGARDO ARTISAUUA

U da-giroa iritsi eta terrazak betetzen hasi diren honetan, garagardorik ez da falta mahai gehienetan. Eta betiko garagardo enpresa handien partez, geroz eta artisaugaragardo aukera gehiago ikusten da denda nahiz tabernetan; horren erakusle dira Euskal Herriko hamaika txokotan sortu diren garagardo ekoizpen txikiak. Nafarroako Pirinioetan, Burgin, duela bost urte inguru sortu zuten Xorta enpresa bi kidek, baina urtarrilean jabe aldaketa eman eta eskualdeko bost gazte sartu dira proiektuan orain. Ahalik eta modu jasangarrienean ekoiztiz bizibidea ateratzea dute helburu. Azken batean, Pirinioetan lan egiteko eta bizitzeko apostua da Xorta proiektua.

Bost sozio badira ere, bi dira soldatapean dauden langileak momentuz. “Koinata eta biok langabezian geunden, eta norbaitek gu kontratatzeke espe-roan egon beharrean, guk geuk zerbait martxan jartzea pentsatu genuen”, dio Jox Ubau Galartza egitasmoko kideak. Garagardoa beharrean beste proiektu bat izan zitekeela dio gazteak; berdin zitzaizen gazta, arrautzak, barraskiloak edo beste zerbait ekoiztea. Baina garagardozeleak izanik eta Xorta abiatu zuten kideek uzteko asmoa zutela jakinik, ez zitzaizen ideia txarra iruditu horretan



buru-belarri sartzea.

“Gure garagardoa erabat artisaua da, falta zaigun bakarria garagarra eta lupulua guk geuk ekoiztea da”, dio garagardogileak. Prozesu osoa beraiek egiten dute Burgiko poligonoan duten gunean, eta lehengaiak ere hurbiletik eskuratzen saiatzen dira. “Lupulua, adibidez, Erriberriko gazte bati hartzen diogu, eta botilak Mendabiatik ekartzen ditugu”, dio. Bertako garagarra eskuratzea zailago zaiela onartzen du gazteak, baina Euskal Herrian enpresa txikiak egon badaude, eta pixkanaka horiei hartzen hastea dute asmo. “Oraindik sozio zaharrek egiten zuten bezala ari gara ekoizten, baina pixkanaka guztia edo behintzat gehiena gertuko gaiekin egitea da burutan daukaguna”, gehitzen du.



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

PIRINIOETAN EKOITZI ETA
BERTAN KONTSUMITU

Pandemia dela-eta gutxiago ari dira ekoizten hilabeteotan, tabernak eta jatetxeak itxita egon direlako. “Normaltasuna” bueltatzen doan heinean, ordea, astean 700 litro inguru ekoiztea da haien asmoa. “Botiletan eta barriletan saltzen dugu garagardoa, batez ere hemen, Erronkariko eta Zaraitzuko ibarretan, baina Iruñeko zenbait tokitan ere bai”. Azoketan ere ibiltzen dira Xortako kideak, eta Burgiko poligonoan asteburutan irekitzen duten kañerodun terraza bat ere badute. Nabearen alokairuaz kexu dira gazteak, Nafarroako Gobernuaren zerbitzu baten bidez baitute alokatuta, eta prezioak Iruñekoekin parekoak direla diote. “Gazteok hemen bizitzen gelditzea nahi badute, gehiago lagundu beharko lukete”, dio Ubauk.

Momentuz, zazpi garagardo mota ari dira ekoizten: horia, tostatuak, APA (American Pale Ale) eta IPA (Indian Pale Ale) motakoak, eta beltza. “Geroz eta fama handiagoa hartzen ari dira garagardo artisauek, eta jendearen mingainak ohitzen doaz pixkanaka. Azkenean, betiko garagardoak hilda daude. Zer esan nahi dudan horrekin? Beti berdin daudela, legamiak-eta ez direla aldatzen. Artisauek bai, hauek bizirik dauden garagardoak dira”, amaitu du. ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

eko lurra

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

ERAKUSKETA BILBOKO
ITSAS MUSEOAN

Agustin Ibarrolaren itsasadarra



Bilboko itsasadarreko paisaiak margotu zituen Agustin Ibarrolak (Basauri, 1930) joan den mendearen azkenetan, desindustrializazioa heldu aurretik. Museoak daude lehen ontziolak zeuden lekuan, ibai ertzeko paseoak dikeen lekuan. Bilboko itsasadarra ez da horren grisa azalean agian, baina paisaia ez da azalekoa soilik. Ibarrolak itsasadarrean girotutako koadroak ikus daitezke orain Itsasmuseumean jarritako erakusketan.

Eguzkiak gupidagabe jotzen du gaur ere. Bilboko itsasadarraren bueltan apur bat bederen freskatzten duen haizeari bero itogarriak gaina har diezaion nahikoa da itzaletik ateratzea. Ezagutu ez dugunontzat zaila da irudikatzea nolakoa zen Euskalduna inguruko paisaia ontziolaren garaian. Zertan aldatu den itsasadarra hainbeste. Hondarrak baizik ez dira geratzen. Museo bat ontziolaren eta itsasadarren historia biltzen duena, ontziolaren izena daraman ekitaldi areto bat, garabi bat bakarra, noizbehinka berritzen duten pintura gorritz baltsamatua. Iragan ez hain urruneko ondare industrialia orotarazten duen monumentua baizik ez da Carola garabi gorria. Moilaren altuerara jaitsi eta koloretako traineruak uretatik atera berri, uretara sartzeaz, jendea arraunerako prest, estropada eguna da antza. Kai lehorrean ontzi batzuk, espaloian aingurak eta kateak, apaingarri. Ontziolaren dikeak zeuden lekuan dago kokatuta Itsasmuseum delakoa, Bilboko Itsas Museoa.

Barruan inor gutxi dagoela dirudi, larunbat arratsaldea da eta eguraldi ederra dago. Sarrerako emakumeak azaltzen du bide bat jarraitu behar dela museoa bisitatzeko, lurreko markei segitzea besterik ez dela, musukoa une oro eraman behar dela, eskuak garbitzeko alkoholadun behar beste botila dau dela eskura. Agustín Ibarrolaren erakusketa? Beheko solairuaren amaieran, ezkerretara.

Agustín seme Irrintzi Ibarrolak egin ditu Laboral Kutxak lagunduta osatu duten erakusketaren komisario lanak. Tamaina handiko hamazazpi olio margolan, hogeit hamarrazki inguru eta eskultura txiki bat, Ibarrolaren itsasadarra biltzen dutenak. Leku aproposa dirudi museoa erakusketa honentzat. Ontziolaren lurretan ontziolaren inguruaren eta garaiaren margolanak. Erakusketaren azpigituluak dioen moduan, “ura, sua, burdina eta airea” agertzen dira. Dagoeneko ez dagoen paisaia bat berreskuratzen dute lanok. Testu gutxi dago erakusketan, eta alferrik da lanen alboan datak, izenburuak eta antzekoak jartzen dituen afixatxoak bilatzea. Artistaren erabakiz omen daude datak eta izendatu gabe lanok, “badakizu nolakoak diren artistak” diost sarre-rako emakumeak. Izenburua, bi aipu, eta katalogo bateko zati bat, akaso marrazkien alboan Ibarrolak eskuz egin-

dako oharren bat edo beste, besterik ez. Irudiekin aurrez aurre dago ikuslea, gaurkoa gisako egunetan bakar-barrik, eta eskertzen da sosegua eta freskura. Erakusketa soila da, mihiseetako askok egurrezko markorik ere ez daukate. Paisaia urrun bateko koloreek betetzen dute espazioa, txikiegia eta handiegia, ilunegia eta argiegia, koloretsua eta gris-a, figuratiboa eta abstraktua, kontraesana da nagusi. Uraren, suaren, burdinaren eta airearen oihartzunak heltzen dira mihiseetatik. Antzekotasun bat kanpoko paisiarekin, traineru gorria airean bezala ur urdinetan.


KOLOREA ETA GEOMETRIA

Juan Ángel Vela del Campok erakusketa-aren katalogoan dioenez, Itsas Museoko erakusketa ez da soilik iraganeko memoria estetiko berreskuratzeko arieta bat. Ibarrolari bizitzea egokitu zaion garaiarekin konprometitutako sortzaile baten sustrai humanistak eta sozialak aldarrikatzen ditu. Nolabait, Ibarrolari ezagunak zaizkion lanen kronologian tarteko espazio bat betetzen dute lanok. Ez dira grabatu kolorgeak, edo Bilboko Arte Ederren Museoan dauden pieza figuratibo hutsak, grisak horiek ere. Ez dira, ezta ere, azken urteetan naturan egin dituen esku-hartze koloretsuak. Baina hor daude forma figuratiboak, geometria markatuz bilduak, eta baita koloreak ere. Itsasadarraren koloreak eta “lan munduaren koloreak” elkartzten dira. Honela dio Ibarrolak: “Lan mun-

duak forma eta kolorea du, nire sentiberatasuna osatu duen mundua da. Lanak sortutako forma, egitura eta harremanen bidez egin dut nik estetikari buruzko hausnarketa nire bizitzan zehar”.

Tamaina handiko mihiseen artean hiru uharte moduko bereizten dira. Brontzezko eskultura txiki bat, silueta bakarra erakusten duena, mahai bat askotariko marrazkiz bete, eta gelaxka bat marrazki gehiagorekin. Marrazkiok, bozetoak, garrantzitsuak dira Ibarrolarentzat, gordetzen dutelako lehen inpresio bat, gordina. Horrelakoak dira ikerketarako materialok, lehen hurbilketa gordinak, baina artistaren obraren bilakaera azaltzen laguntzen dutenak.

Ibarrolaren ibilbide luzeari erreparatuta zaila da dena kontuan hartzea. Gazterik hasi zen, intuizioz, eskolara joan nahi ez eta horren ordezkari koaderno marrazkiz betetzen, errekarri handi bat hartu, base-rriraino eraman eta harekin eskultura bat egin. Bilboko Arte eta Lanbide eskolan egin zituen lehen ikasketak, eta oraindik gaztetxoa zela egindako lehen erakusketaren ostean Madrilera joan zen, Daniel Vázquez Díaz margolariaren estudioan laguntzaile gisa ikastera, Bizkaiko Aldundiaren eta Bilboko Udalaren beka batekin. Hortik aurrera hasten da zabaltzen eta konplexutzen bere ibilbidea. Euskal Herrira itzuli eta Jorge Oteizarekin izan zuen harremana. Gero, Parisera erbeste-ratu eta bereziki Equipo 57 taldearen bueltan aritu zen 50eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera. XX. mende





hasierako abangoardien korronteen teoretan sakondu zuen Equipo 57-k, batez ere konstruktibismoaren bidetik, eta hor aurkitu zuen Ibarrolak bere jardun artistikorako oinarri teoriko bat, norabide bat.

Ibarrolak artelanaren funtzio sozialari buruz esandakoak zabaltzen du erakusketa:

“Artistak bere garaiko errealtatearekin duen elkarrizketa identifikatzen duen artelanak errealtate hori itzuli baino gehiago egiten du, ordenatzen laguntzen du. Errealtate horren ulerkerazabaltzen eta aberasten du eta harengan eragiteko gaitasun handiagoa ematen digu. Artelanak bizitza sozialean daukan eraginaren ondorioz inguruko gertaeren gaineko kontzientzia handiagoa hartzen dugu, sentiberatasuna eta pentsamendua landu eta printzipio moralak sendotzen ditugu”.

ARESTIREN IBARROLA

Ibarrola esan eta bi irudi datoz burura. Omako basoan (Kortezubi, Bizkaia) egindako esku-hartzea, *Baso margotua*, batetik. Bestetik, zuri-beltzeko grabatuak. Grabatu horietako batzuk erraz lo-

tzen dira Gabriel Arestiren poesiarekin.

Margolaria baino hiru urte gazteagoa izanik, gazterik egin zuten topo Arestik eta Ibarrolak. Anjel Zelaietak poetaren biografian aipatzen duenez, bere anaia zaharragoaren eskutik heldu zen Gabriel La Concordia kafetegira, han elkartzen

Paisaia jendeak ere
egiten du, eta jende
hori erakustez gain
interpelatu egin
nahi du Ibarrolak

ziren idazleen eta artisten artera. Ibarrolaz gain Emiliano Serna, Blas de Otero, Vidal de Nicolás eta Gabi del Moral aipatzen ditu Zelaietak. Aresti ordurako "euskaldun kontzientziaduna" omen zen "erdaldun" horien artean.

Ibarrolaren eta Arestiren arteko harremanak fruituak eman zituen ordutik

gutxira. 1965ean Lizardi saria irabazi zuen Arestik Euskal Harria liburuarekin. 1967an argitaratu zuen liburua, *Kriseilu* argialetxe sortu berrian. Hasieran 120 poema zituen, baina erdiak zentsuratu zituzten. Poemekin batera Ibarrolaren grabatuak zeramatzan liburua, eta horietako batzuk ere zentsuratuak izan ziren. Gainera, liburua argitaratu aurretik berriz atxilotu zuten Ibarrola, Laminación de Bandas fabrikaren greba egindako langileen aldeko manifestazio batean. Liburuaren hirugarren zatia, gaztelaniazkoa, Ibarrolari eskainia da, eta Arestiren lanetan behin eta berriz agertzen den izen propioetako bat da berea.

PAISAIAREN GIZATASUNA

Zirraragarriak dira Ibarrolaren grabatuak eta pintura sozialekoak deritzenak. Industriaren bueltako errepresentazioak, lanak dakarren bizimodua erakusten eta salatzen dutenak. Zirraragarriak dira, halaber, naturan egin dituen askotariko esku hartzeak eta eskulturak.

Ikusgarritasun hori, ordea, obraz harago doa Ibarrolaren kasuan. Frankismoaren aurka publikoki egin zuen, eta



hortik jasan zuen errepresioa ere. Espainiako trantsizio delakoaren ostean, batez ere 90eko hamarkadaren bueltatik aurrera, Ibarrolaren izena egunkarietako politikako orrietan ere agertu da. Basta Ya! eta Ermuko Foroaren sortzaileetakoa izan zen, eta ETaren eta oro har euskal abertzaletasunaren aurka egindako adierazpenen ondorioz jo puntuan egon zen.

Ibarrolaren obrei ere eraso egin diete behin baino gehiagotan. Ezagunak dira, esaterako, Omako basoan egin diren sa-

botajeak. Hemerotekan begiratuta, badaude bestelako erasoak ere. Deigarria da hauxe, berezitasunagatik: 1992an Gasteizko kaleetan jarritako hainbat eskultura hondatu zituzten. Santos Iñurrieta margolariak Ibarrolak egurrezko trabeseekin egindako eskultura batzuk bota zituen lurrera, hiriko orduko kultura zinegotzia albotik igarotzen ari zen unean. Eskandalua eragin zuen gertakariak. Iñurrietak azaldu zuenez, Gasteizko hiriaren politika kulturalen aurka protestatzeko egin zuen ekintza. Hori baita

obra publikoa, paisaiari eta bertako jendeari zabaltzen zaiona.

Paisaiak ez dira irudiak bakarrik. Paisaiak jendeak ere egiten ditu, eta jende hori erakustez gain interpelatu egin nahi zuen Ibarrolak. Transmittitu nahi zuen uren, suaren, burdinaren eta airearen artean zer senti daitekeen. Itsasadarreko paisaia aldatu da, baina gauza antzekoak senti daitezke oraindik. Metro batzuk aurrerago, Guggenheimeko garbitzaileak greban daude orain, haien forma eta koloreekin. ●

25 urte elikagai ekologikoak ziurtatzen
Eskerrik asko!

CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
CONSEJO REGULADOR DE PRODUCTOS AGRARIOS ECOLÓGICOS DE NAVARRA

25 ANOS | URTE
CPAEN NNPEK
CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
CONSEJO REGULADOR DE PRODUCTOS AGRARIOS ECOLÓGICOS DE NAVARRA

Ospatu gurekin urteurrena!
Irailak 24-25-26
Zentzumeneren parkea, Noain

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

EUROPEAN UNION



LIBURUA

Jende molde halakoa



RICHARD AVEDON

KAFE TRISTEAREN BALADA

CARSON MCCULLERS
ITZULTZAILEA: ASUN
GARIKANO

PASAZAITE

AMAIA ALVAREZ URIA

Carson McCullers-en narrazioak itzuli ditu Asun Garikanok eta Pasazaite argitaletxeak plazaratu. Egile honen lanik ezagunena *The heart is a lonely hunter* (1940) (Bihotza ehiztari bakartia da) izan zen eta ipuin bilduma hau hamar urte geroago argitaratu zuen. Bere lanetan pertsonaia ezohiko, bitxi, marginalerik betetako Amerikako Estatu Batuetako hegoaldeko giroa topatuko dugu. Izan ere, bi ezaugarri horiengatik, *hegoaldeko gotikoa* erabiltzen dute bere lanak deskribatzeko.

Zazpi ipuin hauetan eguraldi bero hezea edo zoro haizea duten protagonistak topatuko ditugu, besteak beste. Lehen eta azken ipuinak kafetegi batean kokatuta daude eta, bildumako izenburuko kutsu iluna gorabehera (*Kafe tristearen balada*), bi ipuinetan agertzen da kafe-

tegia elkargune goxo gisa: “Han barruan, tarte labur batez bazen ere, moteldu egiten zen mundu honetan hutsa balio duzulako sentipen sakon, mingotsa” eta “Kale gorri, bakartien ondoren, kafeak leku alaitua eta lagunartekoa zirudien”.

Pertsonaiak eta euren bizipenak izango dira orriotara giro goibel edo gatazkatsua ekarriko dutenak –konkordun liskartia, *jockey* sumindua, ama alkoholikoa, edo eskale-filosofoa-. Istorioen erdigunera ekartzen ditu “besteak”, arau sozialak urratzen dituztenak, eta haien inguruarekiko hartu-emanak erakusten dizkigu egileak, normaltasuna auzitan jarritz: “Berak ere bazituen bere bitxikeriak”.

Egoeren eta gorputzen deskribapenak nagusi dira, adibidez, protagonisten eskuen adierazkortasuna: ukabilak itxi,

atzamarrak kaketu, edo hatz-koskorrekin hotsa atera. Gertaera konkretuen bidez gai unibertsalak aletuko zaizkigu, denboraren iragateari edo maitasunari buruzko hausnarketa proposatuko zaigu. Ahots narratiboak zuzenean irakurleari hitz egingo dio tarteka, istorioaren kontaketa mekanismoak bistan jarritz eta informazioa dosifikatuz.

Haur prodigioak ‘berezi’ izatearen presioa agertuko digu, eta jaioterrira aitaren hiletara itzuli den ‘arima askea’ iraganarekin aurrez aurre topatuko da oraina zalantzan jarritz. Baina Madame Zilenskyren ipuina gomendatu nahi dut amaitzeko, bertan agertzen delako aipatutako argiaren eta ilunaren arteko talka, baina baita errealitatearen eta fantasiaren artekoa ere, finean bizitzaren gazi-gozaarena. ●



MUSIKA

Kabaret giroa Arriagan



E. MORENO ESQUIBEL / ARRIAGA ANTZOKIA

'Zazpi bekatu nagusiak' obra. Musika: Kurt Weill; Libretoa: Bertolt Brecht. Bilbao Sintonietta Orkestra. Zuzendaria: Iker Sánchez Silva. Bakarleriak: Nicola Beller-Carbone (sopranoa), Iratxe Ansa (dantzaria), Javier Tomé, Josu Cabrero (tenoreak), José Manuel Díaz, Fernando Latorre (baritonoak). Eszena zuzendaria: Barbora Horáková. Lekua: Arriaga Antzokia (Bilbo), ekainak 5.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Arriaga Antzokiak, batzuetan, antzoki handietan tokirik ez duten ikuskizunak eskaintzen dizkigu, oso bereziak direlako, espazio intimoago eskatzen dutelako, edo beste mila arrazoirengatik. Horrek ez du esan nahi ez direnik hain interesgarriak. Askotan justu kontrakoa gertatzen da.

Oraingo honetan, eta modu egokian, *Zazpi bekatu nagusiak* ballet kantatuak –Kurt Weill konpositoreak berak hala izendatzen zuen– lotura estua du maiatzetik irailera Guggenheim museoan *20ko hamarkada zoroa* gaiari buruz dagoen erakusketarekin. Weill oso konpositore berezia da. Esan daiteke gerra arteko Europa delakoaren isla perfektua dela; are gehiago, Alemaniarena. Lehen Mundu Gerrak (1914-1918) eragiten duen hedapen militaristaren eta Bigarren Mundu Gerran mundua hondamendira eramango

duen mugimendu nazionalsozialistaren (1939-1945) artean dabil. Kurt Weill ezinbesteko elementua da bi gerren arteko 'bakearen' bi hamarkadak ulertze-ko, borrokaz, kontraesanez eta kabarete- bez bateriko hamarkadak.

Testuinguru horretan dago kokatuta *Zazpi bekatu nagusiak*, sailkatzen zaila den lana. Ez da opera eta ez da balleta, berezia eta bakarra da bere generoan. Obra honek Annaren istorioa kontatzen du, ikuskizunean bikoiztuta agertzen den emakumea; Anna I ahots nagusia delarik, eta Anna II, dantzaria. Biak bat dira eta zazpi urtez bizi bidaia bat egiten dute zazpi hiritan zehar, non zazpi bekatu nagusiak ezagutzen dituzten. Anna I pragmatismoa da eta Anna II-k alderdi sentimentala islatzen du, bere burua horrela osatuz. Bidaia hasierako puntuan amaitzen da, hau da, familieren etxean. 'Familia' laukote maskulino

batek ordezkaten du –bi tenore, baritonoa eta baxua, azken horrek Annaren amaren rola jotzen du–, eta beti modu kolektiboan esku hartzen du eta Annak hiri bakoitzean eta bekatu bakoitzaren aurrean dituen gorabeherak kontatzen, kalifikatzen edota deskribatzen ditu.

Nicola Beller-Carbone sopranoak emanaldi bikaina egin zuen bere interpretazio-gaitasun handiari dagokionez, nahiz eta bokalki bere unerik onenean ez egon. Iratxe Ansa (dantzariak) sinergiaritasuna eman zion pertsonaiari, eta sopranoarekin bikain osatu zen, pertsonaia bikoitzaren bertsio bikaina egiteko. Ahots laukotea (familia) fin ibili zen nahiz eta lau ahotsen arteko uztarketa, enpaste eta oreka handiagoa desiragarria izan.

Bilbao Sinfoniettak, Iker Sánchez Silvaren zuzendaritzapean, bere lana eraginkortasunez egin zuen, ahotsak behar bezala azpimarratuz. ●



Tokian tokikoa

 MARTA SENDIU ZULAICA  DOSPORDOS

Gasteizko erdialdea hutsik dago edo, hobeto esanda, hutsik utzi dute. Betiko saltokiek aspaldi itxi zituzten ateak eta lokal hutsek hautsa besterik ez dute pilatzen. Duela hamar-kada bat baino gehiago hasi zen erdiguneko gainbehera horrek bizia eta giroa kendu dizkio Arabako hiriburuko karrika nagusienei. COVID-19aren kalteek dekadentzia hori indartu eta behin-betiko amaiera eragin dute, baina konfinamenduan ereindako IN SITU ArtFestival-ak joera negatibo hori aldatzeko proposamena dakarkigu.

2020ko udaberriko etxeratze aginduarekin batera tokiko merkataritzak eta kulturaren sektoreak kolpe gogorra pairatu zuten. Hori dela eta, Gasteizko erdiguneko hainbat dendatako erakusleihoak baliatu dituzte hiriburuko artista batzuen artelanak erakusteko.

Gasteizen sortu, bizi edo ikasten duten 18 eta 35 urte bitarteko hamar artista multidiziplinarren eta herritarren arteko sinergia berriak sortzeko xedea du proiektuak.

Bertako merkataria eta artisten arteko elkarlanaren emaitza da IN SITU arte jaialdia. Hilabetez Gasteizko Anegón liburu dendak, Amatter kafetegiak, Ibañez Arana estudioak, Farucho diseinu lokalak, Margarita me lllaman lore dendak, Mendia optikak, Minerva inprentak, Mayka artile dendak, On Diseinu lokalak eta The Tap tabernak erakusleihoak artelanez beteak izango dituzte.

Mota guztietako sorkuntzak aurki daitezke kristalaren beste aldean, hala nola, Zuriñe Amorosok Anegón liburu dendan erakusgai duen buztinez eta bitxiez egindako eskultura; Maiela Zurutuzak Ibañez Arana estudiorako eginda-

IN SITU ARTFESTIVAL

NOIZ: ekainaren 4tik uztailaren 2ra.

NON: Gasteizko erdigunean.

ko arroz paperezko haiku idatzia; Edgar Salazarrek Amatter kafetegian ikusgai duen argazki bilduma...

Laburbilduz, gartzetasunez eta bizitzaz betetako sormen proposamen berrri, berezi eta berritzaile horren bidez Gasteizko erdiguneko kaleak berpiztu egin dira hein batean. Latinetik eratorritako "in situ" esamoldeak tokian edo gunean esan nahi du eta hori da Nataliak, Sarak, Alejandrak, Edgarrek, Alaznek, Uxuek, Maielak, Zuriñek eta Saúlek egin dutena, tokira egokitutako artelana. Izan ere, gaur egun hain balio gutxi ematen zaion eskaintza eta zerbitzu pertsonalizatua, zaindua eta landua ematen digute horrelako saltoki txikiek. Horien biziraupena bermatuko duten proiektuek bultzada handia ematen diete gure hiri eta herrietako saltoki txikiei. ●

Aina Vidal

DIPUTATUA ESPAINIAKO
KONGRESUAN



MINBIZIA BIDELAGUN

“Azken urte honetan konfinamendu bikoitza bizitu dut: minbizia fase aurreratuan eta pandemia une berean. Eta zer gehiago? Nire jendea sekula baino hurbilago izateko beharra nuenean ezinezkoa izan zait. Denbora nire kontra nuen, eta estimatzen nituenak berriro ez ikusteak beldurtzen ninduen. Bertalde, pandemiak lagundu dit egoera erlatibizatzen: nik bakarrik ez, jende anitzek pasa du gaizki, familia anitzek ezin izan dute elkar agurtu, heriotza anitz egon da... Hein batean, beldurrean eta minean lagundua sentitu naiz”.

“Emakumeok pairatu dugun isiltasunaren adibide argia da Kongresua”

Espainiako Kongresuan En Comú Podem-eko diputatua da Aina Vidal (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1985). Sindikalismoan ibilbide esanguratsua eginda 2015ean egin zuen Madrilerako jauzia, Xavier Domenechen zerrendakide izanik. Langileen eskubideen babesean duen eskarmentuak Toledoko Itunean Unidas Podemos talde parlamentarioaren bozeramaile izatera eraman zuen.

SAIOA BALEZTENA **DANI BARTOLOMÉ**

Pedro Sánchezen inbestidura egunean jakinarazi zenuen minbizia zenuela. Nola bizitu zenuen egun hura?

Eroa izan zen. Flashak gogoratzen ditut. Indarra eta zoriontasuna irudikatzen saiatzen nintzen, zeharka aurpegi guztiak gogoratzen saiatzen nintzen bitartean, uste nuelako ez nintzela berriz itzuliko. Jende anitzek besarkatzen ninduen dena ongi joango zela esanez. Eta horrek harritzen ninduen, inork ez zekiela-ko zer nuen. Tira, uste dut ez nuela hainbertze babes merezi, baina, era berean, uste dut nire botoa egun hartan garrantzitsua izan zela jende anitzentzat. Nire osasunarengatik arduratuta zeudelako, noski, baina baita gure baietza bizitza erdigunean jarriko zuen gobernu ezkertiarren alde zelako ere.

Zer moduz zaude orain?

Askoz hobeto. Mediku talde bikainari esker ebakuntzara iristea lortu genuen eta arrakastatsua izan zen. Une hartara arte pentsatzen nuen osasuna zuria edo beltza zela, gaixoa edo osasuntsua izan behar nintzela. Gero jakin dut, gainontzeko guztia

bezala, bizitza ere grisetan dagoela. Gaixotasuna kronifikatzea lortu dute, hasieran kolpe gogorra izan zen, nik sendatu nahi nuelako. Baina gaurko ezagutzekin honaino irits gaitzke, eta ezin naiz kexatu. Ongi sentitzen naiz. Ez dut lehenagoko kontzentrazio gaitasun bera, nekatzten naiz eta errekupeazio denbora askoz luzeagoa da. 30 urtetik gorako bestondoekin pasatzen dena gertatzen zait, gogorrek dira, baina ez besta egiteari uzteko adina.

Pandemiak agerian utzi du zuk hainbertzetan aldarrikatu duzun osasun publikoaren balioa, ezta?

Erabat. Pribatuak ez baitu ez bokaziorik ezta gaitasunik ere. Osasun publikoa gizartearen altxor handienetakoa da eta, zoritxarrez, ez dugu bere balioa ikusten gaindituta gauden arte. Horregatik espero dut pandemiaren memoria ez ezabatzea sekula, eta gobernu batek osasun publikoaren baliabideak gutxitzeko tentaziorik sekula ez izatea. Kontrakoa, gehiago espero dut: edozein gobernuak falta diren profesionalak eta baliabideak gehitzea. Inbertsio handia behar da, osasunean, zientzian eta ikerketan.



Irudian, Vidal minbizia zuela jakinarazi ostean, Sanchezen inbestidura saioan. "Pentsatzen nuen osasuna zuria edo beltza zela, gaixoa edo osasuntsua izan behar nintzela. Gero jakin dut bizitza ere grisetan dagoela". Argazkia: Dani Gago.

Osasun publikoaren saturazioa, hein batean, 2008ko murrizketen ondorioa da. Orain Unidas Podemos gobernuan dagoela, zer deritzozu egin den kudeaketaz?

Azken aurrekontu orokorretan %75 igo da osasun publikoan egindako inbertsioa eta %60 ikerketan egindakoa. Nabarmenki azken hamarkadan pairatu dugun austerizidioda atzean utzi da, inbertsioa publikorantz bideratuz. Baina hori ez da nahikoa. Aurrerapauso bat eman beharra dago osasun publikoagoa eta integralagoa sustatzeko: osasun mentala, dentista eta errehabilitazioa bermatuta egon daitezen eta edonork sarbidea izan dezan.

Kongresura itzuli zinen VOXen zentsura mozioaren porrotaren egunean. "Gure beldurretan guk agintzen dugu" esan zenuen.

Beldur handia pasa dut azken urte honetan. Minak, heriotzak eta maite dudan jendea berriz ez ikusteak beldurtu nau. Eta garrantzitsua da beldurrarekin elkarbizitzen ikastea. Sentimendu txar gisa bizi dugu, eta ez da horrela. Beldurrak erne egotea ahalbidetzen du, arriskuen kontzientzia izaten. Psikolo-

giak lagundu dit bide horretan. Eta gure beldurretan guk agintzen dugula ikusi dut. Eskuin muturrak erabaki zuen hatza jendearen zaurian mugitzea, bere alde erabili zuen gizarteak bizitu duen unerik zailenetako bat.

Zure hitzaldia bereziki txalotua izan zen, hemizikloan lehen aldiz salatu zenuelako indarkeria obstetrikoa.

Indarkeria obstetrikoa ageriko sekretua zen eta pandemian areagotu egin da. Lagun asko ikusi ditut gradu desberdinetan pairatzen eta onargarria izango litzatekeena baino askoz okerrago pasatzen. Prozesu osoa bakarrik igaro dute, informazio gutxiagorekin, eta euren nahi guztiak urratuta. Zergatik da erditzea trauma bat hainbertze jenderentzat? Emakume anitzek tortura ikaragarria pairatzen dute. Ikaragarria da.

Nola da posible orain arte indarkeria obstetrikooz sekula ez solastatu izana Espainiako Kongresuan?

Ezin dut ulertu. Seguruenik, "emakumeen kontuak" direlako. Patriarkatuak behar duen kontakizuna da gu isilarazteko. Erditzea kuestionatzea ausarta da

eta deseraikitzen du bizitza osoan ikasi duguna: erditzea medikuen kontua dela. Emakumeok pairatu dugun isiltasunaren adibide argia da Kongresua. Uste dut gehiago hitz egin behar dugula.

Indarkeria obstetrikooaren inguruko datuak asaldagarriak dira. Zein uste duzu izan beharko litzatekeela alderdi ezkertiarren eta, zehazki, Espainiako Gobernuaren papera gai honen inguruan?

Nazio Batuen Erakundeak berak adierazi du indarkeria obstetrikoa gertatzen dela eta desagerrarazi beharra dagoela. Indarkeria ikusezina da, isila eta gizartean onartzen ez dena, ospitaleen protokoloen atzean ezkutatzen dena. Nazioarteko eragileen onarpena ezinbestekoa zen emakumeen esperientziak balioztatzeke eta praktika osasuntsuagoen alde egiteko. Profesionalentzat zaila da, indarkeria obstetrikooz hitz egiteak emakumeen kontrako indarkeria sistemiko eta estrukturala dagoela onartzea baitakar. Gogorra da hori, baina zaila izan edo ez errealitatea da eta, beraz, ezinbestekoa da osasun zentroetan kalitate kontrolak aplikatzea. ●



“Telefono zenbaki gehiago dut blokeatuta, kontaktuetan baino”



Telefónica edo Movistar edo nola dira horiek, Euskaltel, Vodafone... abenduko eulia baino lotsagabeagoak dira guztiak. Lapazorri aluak!”. Gogaiturik dago Joxemai. Jubilatu zenean uste zuen telefono deirik ez zuela jasoko apenas, Maixabel koinatarena eta ezer gutxi gehiago. Badaezpada ere, seme-alaben zenbakiak, arrebarena, anbulategikoa, soziedadekoa, harategikoa eta Segura Irratira zorionak bidaltzekoa dauzka sartuta kontaktuen zerrendan. Dozena erdi bat. “Aldiz, dagoeneko hamazazpi numero ditut blokeatuta. Pain-tailan nueve-uno-zero edo horrelakoren bat ikusten badut, bloquear eta aurrera. Baina alferrik da. Kasualitatez zenbakia


begiratzea ahaztu eta deia hartzen badut, emakumea –beti dira emakumeak, eta oraingo telenobeletan bezala mintzo direnak– esaten diet ni bakean uzteko, baina amuarrainari igeri irakastea bezala da. Nahiko nuke ospitaleko telefonistak nirekin hitz egiteko horrenbesteko gogoia balu! Baina ez, astaputzak baino fundamente gutxiago du hark. Kaguen satanas! Bakunak direla edo beste edozer gauzatarako deitu eta deus ez, musika puta hori eta “laster gara zurekin”, besterik ez. Joxemaik esan digu asmoa duela emakume ekuatoriar bat kontratatzeko, bere izenean anbulategira behin eta berriro hots egin dezan, gizonak nahi duen guztia lortu arte”. ●

Irabazteko beharrezkoa den guztia daukazunean, baina baliatzen ez dakizunean



SAREAN ARRANTZATUA

Sikarioak merke-merke



**ZALDUNA
EBAKITZEA**
16,00 €

Ez nahastu lonez





LAGUNDU BANAKETA SAREA INDARTZEN

Lan baldintza duinak bermatzen dituzten banaketa kooperatibak sortzen ari dira Euskal Herrian. ARGIA hasieratik sustatzaile da eta gainera, honi esker, aldizkariak harpidedunei bizikletan banatzen hasi gara. Helburua, geroz eta herri gehiagotara zabaltzea.



ZER EGIN DEZAKET?

Aukerarik ikusten baduzu herrian halako banaketa sistema bat sustatzeko, jarri gurekin harremanetan eta azter dezagun egoera:


KOMUNITATEA@ARGIA.EUS

ARGIAko kide egin
halako proiektuak bultzatzeko:

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA
943 37 15 45

ORAINGOZ: GASTEIZ · ARRASATE · IRUN · HONDARRIBIA · HENDAIA

MAGIA
MATERIA
ETA BEHARRA
Y NECESIDAD
JOSE MARI ZABALA



Museo Bikoitza 2021-07-01 -- 2022-06-19

STM

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia
www.santelmomuseoa.eus
 @santelmomuseoa

ANTOLATZAILEA:



ERAKUNDE BABESLEAK:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SALA
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLITICA LINGÜISTICA